

Herririk herri

Margarita Maturana dohatsuari buruzko museoa inauguratu dute Berrizko Vera Cruz Komentuan > 5



Jaiak

Gehigarria: Antonio Deunaren jaiak



Durangoko Terrazen Udal Ordenantza itsu baten ikuspuntutik > 2

> Eli Berasaluze itsua da; itsuak autonomo izan daitezen, terrazak arautzeak duen garrantzia azpimarratu du

> Bastoiagaz doanean, horma kontran jartzen dituzten oztopoek geldiarazi egiten dute Eli

Greba mugagabea Odi-Bakarren > 3

Iurreta. Lan baldintzak "blindatzeko" barne akordio bat proposatu diote enpresari. Grebak irauten duen bitartean, enpresaren aurrean etxola bat jarri dute 24 orduan protesta egiteko.

"Kantxa zati bat", erabakitze eskubidearen alde > 5

Berriz. Nazioen Munduak ekimenaren haritik, autodeterminazio eskubidearen aldeko egitasmoa sortu dute Berrizen. Hainbat sentsibilitateko 150 berriztarrek itun bat sinatu dute egitasmoagaz bat egiteko. Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatze asmoa daukate, eta taldea guztiz irekia dela azaldu dute.

ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Eitua industrigunea 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
94 682 45 50
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



Durangaldea > 4

Erralde likidatzeko, kapital zabalkundea jarri dute martxan

Abadiño > 6

Gerediaga-Elorrio errepidea eraikitzeari ekin diote Gazteluan

Mañaria > 3

Botikina berreskuratuko dute aurten mañariarrek

Durangaldea > 4

80 kaleratzeren aurkako mobilizazioak, Alfa taldean

➤ Herririk herri

➤ DURANGO

Terrazen ordenantza, itsuen autonomiaren lagungarri

Kalean ibiltzerakoan, itsuen erreferentzia horma izan ohi da; arautegi berriak hormaren eta terrazen artean espazio bat uztea exijituko du

➤ MARCEL ONAINDIA

Kazetariagaz hitzordura, ordu-betez tren geltoki berria ezagutzen eta memorizatzen ibili ostean agertu da Eli Berasaluze (Durango, 52 urte). Ez du arazo handirik topatu geltokian: “Zer gutxiago, XXI. mendean. Simpleagoa egin ahal izango litzatekeela? Segururik, eta praktikoa ere bai”. Baina, ez da gaurko gaia. Terrazen udal ordenantza berriak itsuen bizimoduan lagundu ahal duena erakutsi gura du Berasaluzek. Eskutik heldu eta Ezkurdiko estalpeko hormara joaten laguntzeko eskatu du. “Gure gida horma da, bastoiaren gida da. Horregatik egon behar da espazio bat hormaren eta terrazaren artean. Ez da kapritxo bat, beharra da”. Urrian onartutako arautegi berriak espazio hori egotea exijitzen du –kalearen arabera, metro bi gutxienez–, baina errekursoak tarteko oraindik ez dago indarrean. Hori frogatzen da estalpetik aurrera joan ahala, Berasaluzek terrazekin topo egin du-eta. Pareta libre ez edukitzera, erreferentzia galdu eta arazoak dauzka aurrera egiteko. Ordenantza, pauso garrantzitsua dela uste

du: “Ezgaitasunak dauzkagunon helburua autonomoak izatea da, inori laguntza eskatu barik, eta horretan laguntzen du”.

Terrazak igarota, etxe-atari batean aurkitu du erreferentzia bere bastoiak. Gizon bat irtetzekotan dago, baina geldi eta isilik geratu da. “Txarrena isiltasuna da, ez dakizulako baten bat dagoen edo ez. Batzuk isilik eta geldi geratzen dira, ezjakintasunagatik”. Jendeagaz inoiz ez ei du arazorik eduki, eta borondate onagaz terrazen erabiltzaileek ere neurria ulertuko dutela us-

Pareta libre ez edukitzera, erreferentzia galdu eta arazoak dauzka aurrera egiteko

“Horregatik egon behar da espazio bat hormaren eta terrazen artean. Ez da kapritxo bat, beharra da”

te du. Taberna baten kanpoan mahai altu baten kafea hartzen daude lagun bi, eta horiekin topo egin du; adeitsu lagundu diote. Horrelako mahaiak ipini ahal izango dira aurrerantzean ere, baina zabalera handiena behean eduki beharko dute; bestela, itsuek goiko aldeagaz tupust egin ahal dute.

Ezkurdi ez da arazoak eduki dituen leku bakarra. Andra Maria inguruan jendeagaz eta terrazekin kontzentrazio handia egoten dela esan du. “Goienkaleen ere sarritan segurtasun barik sentitu naiz”. Normalean, bastoiagaz barik txakurragaz irteten du kalera. Berak lekuak ezagutu eta txakurrari erakusten dizkio, aginduen bidez. “Txakurrak oztopo horiek kentzen dizkit”.

Ezkurdin berriro buelta hartu eta etxerako bidean doa Berasaluze. Jendeak egunerokoan kontuan hartuko ez lituzkeen hainbat xehetasun dauzka memorian gordeta. Honela hausnartu du: “Gaur egun, irudiaren munduan bizi gara, eta jendearentzako agian, gauza asko dira aldi berean barnertzeko. Gu, irudia ez izatera, igual gehiago helitzen gara oinarritzora”.



Eli Berasaluze, Ezkurdiko estalpetik ibiltzen.



“Beti tokatu izan zait borrokatzea”

Emakume borrokalaria da Eli Berasaluze. Duela pare bat urte hasi zen terrazen gaiaren inguruan mugitzen. Herriarren Arreta Zerbitzuan idatziak aurkeztu zituen. “2011ko udal hauteskundeetan aurretik alkatearen gutun bat jaso nuen, esanez irailean ekingo ziotela gaiari. Eta, gaur arte, berdina gaude”. Denbora honetan zehar Arartekora ere jo du bere kexagaz.

Ordenantza 2012ko urrian onartu zuen udalak, tabakoaren legearen ondorioz terrazak ugaritzen direla-eta. Horren barruan, oinezkoak eta ezin-duk kontuan hartu dituzte. Alegazio epean dago orain. Baina, Berasa-

luzeren ustez, dagoeneko ezarrita dauden terrazek espazioa uztea bultzatu beharko luke udalak. Politikariei eskaera egin die: “Boterea daukatenak kalera irten daitezela, entzun dezatela. Distantzia bat markatu ohi dute, eta hori ez dago ondo”.

Berasaluzek gradualki galdu du ikusmena: “Beti tokatu izan zait borrokatzea”. Gogoan du, duela 21 urte, enpresa batean lanean egon eta ezinduen hitzarmena aplikatu ziotela, ‘normalean’ beharrean. “%40 gutxiago kobratzen nuen. Nire betebeharrekin kuntplitzen badut, zergaitik ez dauzkat ikusten dutenen eskubide berberak?”.

> MALLABIA

Ekintzaileek erabiltzeko lokala atondu gura du Mallabiko Udalak

2013ko aurrekontuak onartu ditu udalak Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioagaz

> JONE GUENETXEA

Abenduaren 27ko udalbatzarrean onartu ditu Mallabiak 2013rako aurrekontuak. Mila Mondragon alkatearen berbatan, "sarrerren jaitziera aurreikusten dugunez, tentuz jokatzera erabaki dugu". Aurtengorako 2,04 milioi euro izango ditu udalak, iaz baino %10 gutxiago.

Inbertsioen atalean, hainbat proiektu aurrera eramateko dirulaguntzen zain dago udala. Me-

diku kontsultategiaren eraikinean berogailua gasarekin egokitu gura dute, eta argindarra modu eraginkorragoan jarri. Gainera, eraikin horretan udalak duen lokal bat atontzeko helburua dute, ekintzailearen batek bere negozioa jar dezan. Horrela, krisi ekonomiko sasoian enpresa berriak sortzeko ahalegina egiteaz gainera, herrian ez dagoen zerbitzuren bat martxan jar daitekeela dio Mondragonek. Medikuntzako kontsultategiko eraikinerako 31.000 euro bideratu dituzte.

Eskolako frontoiko egitura berriztu eta margotzeko 10.000 euro aurreikusi dituzte. Auzoetan sortzen diren konponketak egiteko, berriz, 22.000 euro bideratu ditu udalak.

Inbertsioen atalean, hainbat proiektu egiteko dirulaguntzen zain dago udala

> OTXANDIO

Etxeko berokuntza zelan optimizatu irakatsiko dute

Bihar goizeko ikastaroan energia aurrezteko etxeko isolamendua zelan hobetu azalduko dute

> JOSEBA DERTEANO

Etxe batean energia aurrezteko modu asko dago. Esaterako, berokuntza sistemari dagokionez, berogailuak sortzen duen beroari ahalik eta gehien eustea garrantzitsua da. Horregatik, Herri Ola egitasmoaren barruan, Otxandioko Udalak berokuntzari eta etxeko isolamenduari buruzko gakoak ematen dituen ikastaroa antolatu du zapatuan. Herritarrak 09:30ean daude dei-

tuta haurreskolan. Egoitz Mendizabal udal arkitektoa izango da hizlaria eta ikastaroak 90 minutu inguru iraungo du.

Bertan, etxea modu eraginkorrean zelan isolatu azalduko dute. Horrez gainera, berokuntza sistemaren inguruko hainbat datu emango dituzte: beroaren transmisioa zelan ematen den, beroa sortzeko zer sistema dagoen... Herritarrek euren dudak galdu ahalko dituzte.

> IURRETA

Odi-Bakarrek grebalariek atzo eman zuten prentsaurrekoa enpresaren aurrean.

Greba mugagabea hasi dute Odi-Bakar enpresan

Lan baldintzak "blindatzeko" barne akordioa proposatu diote langileek enpresari

> AITZIBER BASAURI

Odi-Bakar enpresako langileek greba mugagabea hasi dute. Langileen %90ek (55 dira guztira) Mallabiako auzoan dagoen enpresaren aurrean 24 orduz protestatzeko asmoa duela jakitera eman zuten atzo prentsaurrekoan. "Egoera ekono-

mikoaz jabetuta", berba egiteko eta akordioetara heltzeko prest daudela dio Enpresa Komiteak (bina ordezkaririk dituzte LAB eta ELA; independentea da beste bat), beti ere, alde biak "aukera berdina" izanda.

Lan Erreformatan enpresari emandako aldebakartasuna be-

Enpresaren aurrean 24 orduz protestatzeko asmoa du langileen %90ek

rriz orekatzeko, barne akordio bat aurkeztu diote enpresari, "langileen lan baldintzak blindatzeko gutxieneko batzuk jasota". Soldata jaitziera edo lanorduen luzapenerako akordioa behar izatea, derrigorrezko arbitrajari ez egotea eta hitzarmenek denbora mugarik ez edukitzea eskatu dute, besteak beste. Enpresak soldaten jaitziera proposatu du.

2010eko maiatzetik elkar ka-teatutako enplegu-etete espedienteak izan dituzte enpresan. Abenduaren 21ean amaitu zitzaizkien azkena.

> MAÑARIA

Botikina berreskuratuko dute aurten mañariarrek

Botikina berriro martxan ipintzea zehaztu dute aurrekontuetan; 9.230 euro dauzkate horretarako

> MARKEL ONAINDIA

Mañariko Udalak aho batez onartu ditu 2013rako aurrekontuak eta, bertan, botikina berriro martxan ipintzea zehaztu du-

te. Lokal bat egokitu dute horretarako. Hala, 9.230 euro gorde dituzte egitasmorako, eta %54ko dirulaguntza edukitzea espero dute. Egitasmo hau, bes-

te batzuen artean, herritarren ekarpenekin osatu dute. Plazako umeentzako parkea ere ekarpen horietatik konponduko dute, esaterako.

Aurrekontuetan, Gizarte Laguntza lako partidak ez dituzte murriztu gura izan, Endika Jaio alkateak azaldu duenez. Aurten Hiri Antolamendurako Plan Orokorra lantzen hasiko dira, eta prozesu parte-hartzaile ipiniko dute martxan horretarako.

GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net
1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
Bixente Kapanaga 19, behea - 94 681 66 73 - Iurreta
www.zaratyelexpe.com

IURRETA

Elorrion ere aukera onak

> DURANGALDEA

Durangaldeko Esperientzia Institututik jaiotako Bizidun elkarteak.

Behargintza, ikasteko gogoan duten helduen topalekua

55 urtetik gorako hainbat lagun ikasle bihurtu dira 'Gaurko munduan bizitzeko gakoak' ikastaroan

> AMAIA UGALDE

Koaderno hartu eta eskola denboretan legez, ikasteko aukera izaten dute 55 urtetik gorakoek DEI Durangaldeko Esperientzia Institutuan. Eguazten honetan *Gaurko munduan bizitzeko gakoak* ikastaroa hasi dute bertan. Hainbat gauza landuko dituzte: pertsona nagusiek gizartean duten papera, zahartzaroak norberaren bizitzan duen eragina, autoestimua, historiako pasarteak, Durangaldeko kultura eta historiaren errepasoa...

Maiatzera bitartean, eguazteno izango dituzte hitzaldiak eta irteerak, 17:00etatik 19:00etara, eta oraindik taldeazabalik dago. Interesa edukiz gero, Behargintzan galde daiteke edo 94 623 25 22 telefonora deitu. Amankomunazgoak eta Durangoko Udala antolatzen dute DEI.

Bizidun elkarteak

Formazioa hartzeaz gain, lagun berriak egiteko lekua ere bada Esperientzia Institutua. Ikastaroa amaituta ikasten eta elkar-

tzen jarraitu gura izan duen talde batek Bizidun elkarteak sortu du. Bertako kide Maribel Navarrok azaldu duenez, "antzeko jaikingurak eta grinak batzen dituen laguntaldea" da Bizidun.

Urtarrilerako komunikazio-gaz eta psikologiagaz lotutako hitzaldiak antolatu dituzte. Jose Mari Berriozabal taldekidearen ustez automotibazioa eta autoestimua ematen ditu taldeak: "ikasten jarraitzea eta besteentzako lagungarriak izatea gura dugu". Enrique Jimenezen berbetan, asmoa gizartean parte hartzen jarraitzea da: "nagusitzek ez du esan gura gizartetik isolatu behar dugunik".

Erralde likidatzeko pausoak ematen ari dira

Erralde hiltegia osatzen duten 15 herrietako udalek sozietatea desegiteko bideari ekin diote. 490.000 euroko zorra dute baserriarrek (350.000), eta abuztuan kaleratu zituzten beharginekin (120.000 euro). Jose Luis Navarro Abadiño alkateak likidazioa gauzatzeko osatutako batzordean dihardu. Kapital zabalkundearen ekarpen handiena egingo duena Abadiño Udala da, 95.000 euro-gaz. Navarrok dioenez, ahalegin handia egin dute baserriarrei eta langileei elkarteak zorriena ordaintzeko. Berrizek 69.000 euro bideratzea onartu du dagoeneko.

Elorrioren kasua

Udal bakoitzak duen biztanle kopuruaren eta hildako buruen arabera ordaintzea da Erralde ezarritako irizpidea. Elorrioko Udala baina, ez dago ados erabaki horrengaz. Joseba Mujikak, udalaren Erralden duen ordezkariak dioenez, "elkarte baten sartzaren zarenan bere parte-hartze sozialaren arabera esku-bide eta betebeharrak batzuk dituzu". Elorrioren kasuan, udalaren aho batez onartu zuen azken udalbatzarrean 27.000 euro Erraldeko kapital zabal-kundera bideratzea.

Euskara Biziberritzeko Plana onartu dute aho batez

2012ko azken udalbatzarrean Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen Durangaldeko Amankomunazgoak aho batez. Oskar Zarrabeitia presidentearen esanetan, euskararen normalizaziorako bidean "ezinbesteko tresna" da Euskara Biziberritzeko Plana.

Amankomunazgoa osatzen duten euskara teknikarien eta arduradunen arteko elkarlana ere azpimarratu zuen Zarrabeitia jeltzaleak udalbatzarrean: "Beraiek egindako iradokizunak eta ekarpenak ezinbestekoak izan dira plana diseinatu eta aurrera eramateko".

Bilduko Arrate Elkorok ere teknikariek egindako lana azpimarratu zuen, baina planari "zehaztasun falta" ikusten dio eta "helburuak orokorrak" direla esan zuen. Planari jarraipena egitea eta gehiago zehaztea eskatu zuen udalbatzarrean.

Bilduk "zehaztasun falta" ikusten du, eta planari jarraipena egiteko eskatu zuen

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

Durangaldeko Behargintza
Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comarcal de Desarrollo

DURANGO
Udala - Ayuntamiento

IKASTAROA:
"Gaurko munduan bizitzeko gakoak"

LANDUKO DIREN GAIAK

- Adinekoak egungo gizartean (demografia, gizarte aukerak, aukera pertsonalak...)
- Historiaurretik etorkizuneko gizarterantz (jatorria, gizadiaren garapena, globalizazioa, teknologia berriak...)
- Garapen pertsonala (trebetasun sozialak, emozioen lanketa...)
- Giza-partaidetza

Urtarrilaren 9tik maiatzaren 29ra arte

Prezioa: 35€ (Durangaldean erroldatuak) - 45€ (besteak)

Ikastaro hau gaztelaniaz izango da

Interesa baduzu deitu hurrengo telefonora: **94 623 25 22**
Durangaldeko Behargintza - Laubideta, 6 - Durango
www.mdurango.org

80 kaleratzeren aurkako mobilizazioei ekin diete Alfa taldeko enpresetan

Abadiño, Mallabiko eta Ermuko enpresa komiteek manifestazioa deitu dute gaurko

> JONE GUENETXEA

Mobilizazioekin jarraitzen dute Alfa taldeko beharginek. Enpresak 80 lagun kaleratuko zituela adierazi eta gero, taldeak Abadiño, Mallabiko eta Eibarren dituen enpresetako beharginek mobilizazioei ekin diete. Enpresaren zuzendariak 47 behargin kaleratzea aurreikusitako Mecañica Ma-

llabian, 13 Alfalanen eta 27 Alfahogarren.

Eguaztenean administratzaile konkurtsalen eta Kutxa-banken bulegoen aurrean elkarretaratzeko egin zituzten Bilbon. Kaleratzeak eta soldata jaitsierak kritikatu dituen enpresa komiteak. Enpresak ez duela ezelako akordioetara heltzeko borondatearik agertu salatu du LAB sindikatuak.

Ermutik Eibarrera martxa deitu dute gaurko, *Alfa ez itxi, Alfa despidorik ez* lelopean. Behin Eibarrera helduta, manifestazioan batuko dira Abadiño, Mallabiko eta Eibarko enpresetako beharginak irtenbide bat eskatzeko.

Enpresak ez duela akordioetara heltzeko ezelako borondatearik azaldu du LABek

240 lagunek parte hartu dute Berbalagun lehiaketan

Durangaldeko Berbalagunek *Anboto* astekariagaz batera antolatutako IV. Kultur lehiaketa "arrakastatsua" izan dela azaldu dute antolatzaileek. Guztira, 240 lagunek aurkeztu dituzte beraien lanak: "Makinatxo bat izan dira, lanak ondo eginda, galdera guztien erantzunak asmatu dituztenak". Saria ezin denez guztien artean banatu, antolatzaileek liburu sorta banatzeko zozketa egin dute. Belen Arrazola Arriola durangarra izan da lehiaketako irabazlea.

Euskaldunzaharrak eta euskaldunberriak elkar eza-gutzeko biltzen dituen Berbalagun proiektuak oraindik ateak zabalik ditu parte hartu gura duenak izena emateko. Horretarako, 639 40 07 86 telefono zenbakira deitu eta izena eman daiteke.

> BERRIZ

Ezkerrean, Arantza Urresti musearen arduraduna. Eskuinean, inaugurazio ekitaldian ateratako argazki bat.

'Margarita Maria, Berriztik Mundura' misiolari bidaiaria

Margarita Maturanaren bizitzari buruzko museoa zabaldu dute Vera Cruz komentuan. Berrizko klausurako museoa misioetako institutu bilakatu zuen

> JONE GUENETXEA

Berrizko Vera Cruz komentua *Margarita Maria, Berriztik Mundura* museoa inauguratu berri du. Joan zen egunean antolatutako ekitaldian museoa erakustez gainera, Mario Ice-ta gotzainak meza eskaini zuen. Margaritak martxan jarritako misioek aurrera jarraitzen dute. Gaur egun, misioetan dihardute 400 mojek, 17 herrialdeetan lanean.

Margarita Maria Lopez de Maturana bilbotar gazteak 16 urte zituen Berrizko Vera Cruz komentura heldu zenean. Nautikako ikasle bat ahaztu zezan bidali zuen hara bere amak. Erabaki hark Margarita Mariaren eta ehundaka mojen bizimodua aldatu zuen. Bokazioa aurkitu zuen komentuan, eta moja sartzea erabaki zuen.

Bere ahaleginari esker, 1930ean klausurako komentua Misiolarien Institutu bilakatu zuen, Mesedeetako Misiolariak sortuz. 1926an sekula bidaiatu bako mojen espedizio bat bidali zuten misioetara Txinara.

1927an, mapan ere topatzea zaila egiten zen Mikronesiako irletara eta 1928an Japoniara bidaiatu zuten. Batez, ere ebanjelizazioan jardun zuten, emakumei hezkuntza eskaintzen eta umezurztegi eta anbulatorioak sortzen. 1943an ekin zioten Mar-

garita Maria dohatsu bihurtzeko prozesuari. Beatifikazio elizkizuna 2006ko urriaren 22an Bilboko Santiago katedralean egin zuten.

Filipinetan, Erdialdeko Amerikan, Hego Amerikan, Afrikan bai eta Espainiar estatuan ere.

«Gordeta genuen material hau guztia erakutsi gura dugu»

Arantza Urresti (Berriatua, 1936) Vera Cruzeko komentuko mojetako bat da. Margarita Mariaren museoren arduraduna da. Berak ere misio ugartan jardun du laguntzen, Congon esaterako.

Zelan sortu da museoa martxan jartzeko asmoa?

Dokumentazio eta material ugari genuen gordeta, eta bisitan zetozonei erakusten genien. Jende gehiagori dokumentazio hau guztia erakusteko zer egin genezakeen pentsatzen hasi ginen.

Gotzaindegian esan ziguten Eliz-museoetako lagunduko zigutela, eta halaxe izan da. Juan Manuel Cembellin eta Raquel Cillak lagundu digute. Komentuan genuena aztertu dute eta museoa atondu.

Informazio ugari bildu duzue urteotan.

Margarita Mariak esaten zuen egiten genituen bidaietan argazkiak ateratzeko. Bidaietako argazki eta herrialde askotako objektuak ditugu, baita komentuko dokumentazioa ere.

dira abenduan egitasmora; gutzira, 116 erabiltzaile daude, beraz, momentu honetan.

Urtarrilean erabiltzaile guztiakin batzarra egingo dute udal ordezkariak, eta etxean edukitzeko edukiontzi txikiak banatuko dituzte, bai eta patata fekulazko poltsak ere. Poltsa biodegradagarri horietan batutako kaleko kontainerretan botatzeko giltzak ere banatuko dituzte, berziklapena era eraginkorrean egin dadin.

te, hondakin organikoak bertara eroan eta gero konpost bihurtzeko. Orain arte atez ateko bilketan jardun duten herritarrez gainera, 56 familia eta jatetxe bat batu

>A.U.

Urte berriarekin Berriziklatu egitasmoak bere bigarren fasea hasiko du laster: kalean edukiontzi marroiak ipiniko dituz-

Erabaki eskubidearen alde 'Kantxa zati bat' egitasmoa eratu dute

Nazioen Mundua ekimenaren haritik ituna sortu dute, eta dagoeneko 150 bat lagunek sinatu dute

> AMAIA UGALDE

Autodeterminazioaren eta erabakitze eskubidearen alde, hainbat sentsibilitateko berri-tarrak batzeko sortu dute 'Kantxa zati bat' egitasmoa. Idiazabalen sortutako Nazioen Mundua ekimenetik abiatuta, Berrizen itun bat prestatu du-

Azpitarte alkate ohia eta Gor-ka Camara, Aitor Zubelaga eta Karmen Amezua zinegotzi ohiak ibili dira, besteak beste, ituna prestatzen. Camarak azaldu duenez, "Idiazabalgoa lako ekimena aurrera ateratzeko aukera ikusten genuen, Berrizen desberdinen arteko sintonia somatzen dugulako". Alderdi politikoen kontua barrik, herritarren egitasmoa dela nabarmendu du Camarak.

Prestatutako ituneko puntuetan, Euskal Herria nazio naturala dela aldarrikatu dute, eta horregatik, herritarrek etorkizuna erabakitze eskubidea dutela. "Eskubide hori demokratikoa eta unibertsalakenez", Euskal Herria eta nazioartean eskubide hori eskatzen dute.

2013an zehar 'Kantxa zati bat' egitasmoaren gainean hainbat ekitaldi antolatu gura ditu itunaren inguruan bildutako taldeak. Taldea guztiz irekia dela nabarmendu dute.

Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatu gura dituzte, eta taldea guztiz irekia dela azaldu dute

te, "demokrazian oinarritutako printzipio baten aldeko jarrerera" erakusteko. Abenduaren 29an egin zuten aurkezpena, eta itunak 150 berri-tar ingururen sinadura jaso zuen.

Idea pasa den legegintzaldiko udal ordezkari batzuen ekimenetik etorri da. Jabier

> IZURTZA

Fosroc enpresan 17 langile kaleratu eta soldatak jaitsi dituzte

Soldata jaitsierari dagokionez, diru sarreraren arabera sistema progresiboa onartu dute

> JOSEBA DERTEANO

Fosroc enpresan 21 langileren kaleratzea aurreikusten zuen kaleratze-espedienteak aurkeztu zuten azaroan. Baita soldatak jaitsea jasotzen zuen etendura-espedienteak ere. Azkenean, 17 langile kaleratu dituzte eta soldatak progresiboki jaitziko dira, bakoitzaren soldataren arabera. David Palacios ELA sindikatuko ordezkariaren arabera langileek "etsi-

penez" onartu dituzte erabakiak.

Kaleratu batzuk 55 urtetik gorakoak dira, eta aintzinatatsuna dute. Horiei 63 urtera arteko kotizazioa ordainduko die enpresak. Gainerakoei legeak jasotzen dituen urteko 20 egunak ordainduko dizkiete.

Horrekin batera, enpresak berkolokazio plana eskainiko die kaleratuak izan diren langile horiei, enplegua bilatzen laguntzeko helburuarekin (*currículum* prestatzen...). Fosroc-en lana sortzen bada kaleratuek lehenetsua izateko konpromisoa ere hartu dute.

Azkenik, soldata jaitsierari dagokionez, diru-sarreraren arabera sistema progresiboa onartu dute.

55 urtetik gorakoei 63 urtera arteko kotizazioa ordainduko die Fosroc enpresak

> ABADIÑO

Sakone baserriariaren inguruan dabilta lanean.

Gerediaga-Elorrio tarte berriko obrak Gaztelun

Tunel bi eraikiko dituzte Gaztelu auzoan: 1.141 metrokoa bata, eta 594 metroko luzerakoa bestea

> ITSASO ESTEBAN

Urteetan proiektatuta eduki duten obra abiatu zuten urte amaieran, Gaztelu auzoan. Abadiño eta Beasain lotuko dituen errepide berriaren zatia hasi dira eraikitzen: A8aren Gerediaga-Elorrio tarte berri eta Elorrioko saihesbidea lotuko ditu errepide berriak.

Lurpetik igaroko du, azkenean, Gaztelu auzoa errepide berriak. Orain hamarkada bat, auzoa erditik pasako zuen errepide proiektuaren berri eduki zu-

tenean, egitasmo horren kontra mobilizatu ziren gazteluarrak. Hasierako proiektua aldatu egin zuen Aldundiak, eta 2012 amaieran abiatu dutena onartu zuten.

Tunel bi eraikiko dituzte: 1.141 metrokoa bata, eta 594 metrokoa bigarrena. Tunel horien sarrera-irteerak prestatzen hasiak dira dagoeneko.

Abendu hasieran ekin zieten obrei eta kamioi eta makineria joan-etorriei, eta luze iraungo dute lanek: auzotarrei jakinarazi dietenaren arabera, 3-4 urtez.

Durangora aldatu behar izan du Topaguneak egoitza

Muntsaratz auzoko lokalean egin du Euskara Elkarteen Federazioak azken urteetan bere lana

> I.E.

Topagunea elkarteko langileek adierazi dutenez, iazko udaberriari hasi ziren lantoki duten Muntsaratzko lokalaren inguruko arazoak. "Auzokide baten ustezko salaketaren eraginez, alkateak jazarpen onartezina egin dio herrian 20 lanpostu eta jarduera ekonomikoa ekarri dion erakunde honi", dio Topaguneak Anbotora bidalitako gutun batean.

Euskara Elkarteen Federazioak, orduko udalak eta lokalaren jabea den higiezinaren agentziak onarturiko akordioaren arabera, "prezio sinboliko bat ordainduta" Muntsaratzko hori izan du Topaguneak 2001etik lantoki. Abadiñoko Independententeak taldeko udal gober-

nuak adierazi duenez, baina, urrira arteko zen loteslea akordio hori. "Intsonorizatu gabe" dagoen lokal horretan federazioak bere jardunean eragindako "zarategatik" salaketa ipini zuen Aiko gobernu taldeak ohar batean adierazi duenez, aldi berean, auzokide batek.

Topaguneak eragindako "zarategatik" salaketa ipini zuen auzokide batek, alkateak dioenez

"Topaguneak egoitza Abadiñon mantentzea zezan egin zitekeen guztia" egin duela adierazi du Jose Luis Navarro alkateak ohar batean.

Baina, Durangora lekualdatu behar izan du lantokia, azkenean, Topaguneak. Federazio-ko langileek azaldu dutenez, Durangoko Udalaren eta Aldundiaren babesagaz lortu du te egoitza berria.

Topaguneak bere jarduera herrian mantentzea ahal duen guztia egin duela dio udalak

> GARAI

Bertako produktuen enkantea, Errematan

> M.O.

Datorren egunean, San Anton egunez, Erremata egingo dute Garain. Tradiziozko ekitaldi honetara bertako produktuak erosten dituzte herritarrek eta, gero, enkantea egiten dute horiekin guztiekin. Eguerdian izango da. "12:00etan meza egongo da, eta 12:30erako hasteko moduan izango gara", esan du te antolatzaileek. Meza amaitzean, abadeak ingurueta-ko lurrak eta produktuak bedeinkatuko ditu. Orduan hasiko da Erremata, jaki, animalia, pastel eta antzeko produktuekin. Iaz, esaterako, txakurkume eta oilanda banagatik eman zuten diru gehien, 60 eta 40 euro hurrenez hurren.

Produktuengatik jasotzen den dirua ongintzarako eta herriko gasturen bati aurre egiteko erabili ohi dute. Iaz, adibidez, Caritas elkarteak laundua zuten.

Meza amaitzean, abadeak ingurueta-ko lurrak eta produktuak bedeinkatuko ditu

Prezio tasatuko etxebizitza berrietarako ordenantza

Abadiñoko Independententeak taldeko gobernuak eta EAJk bozkatu zuten abendu udalbatzarrean prezio tasatuko etxebizitzaren ordenantza berriaren alde. Proposamenaren kontra bozkatu zuten, oster, Bilduk.

Udal gobernuak azpimarratu duenez, ordenantza berri ho-

rren arabera esleituko dituzte Abadiñoko prezio tasatuko lehenengo etxebizitzak: Traña-Matienan, Carburibar inguruan eraikiko dituzte sustatzaile pribatu batek 20 etxebizitza horiek. Bi edo hiru logelako 68 eta 85 metro karratu arteko etxebizitzak izango dira.

Aiko udal gobernuak ohar baten bidez jakinarazi duenez, otsailaren 1era arte eman daiteke zozketan parte hartzeko izena: higiezinaren enpresak Traña Errota kalean duen bulegoan jasoko daiteke informazio gehiago.

> ATXONDO

Berriozarrera irteera antolatu du Asuntzek

Berriozarko rokopolisean egunpasa antolatu du Asuntze mendi taldeak domeka honetarako

> JOSEBA DERTEANO

Asuntze mendi taldeak urte berriko egutegiari hasiera ematen dion ekitaldia antolatu du domeka honetarako. Berriozar-

rren rokodromoan eta beste hainbat azpiegitura hartzen dituen rokopolisa dago, eta bertara egunpasa antolatu dute (17 euro). Asuntzeko ordezkari Egoitz

Lizundiak azaldu duenez "iaz 15 lagun joan ziren, tartean familia bat baino gehiago". Egunpasa "oso gustura" geratu zirela dio eta horregatik erabaki dutela aurten errepikatzea. Autobusa domekan, 08:45ean, irtengo da Apatako plazatik. Ez dago izena eman beharrik; nahikoa da domekan goizean autobus geltokira joatea. Nork bere bazkaria eroan behar du, baina bertan bazkaltzeko guneak daudela azaldu dute.

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Solaguren kalea 3
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.sl@terra.es
MATIENA
ABADIÑO

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK
ETA BEROGAILUAK, AXULEIU,
ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 94 620 18 93
Faxa: 94 681 64 03

Ofizinarako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

94 620 22 41

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

> DURANGALDEA ASTEON**Laura Navas zornotzarrak lortu du JAEDen kotxea**

JAED elkarteak egiten duen urteroko Gabonetako zozketak bada irabazlea. Kotxea izan ohi da sari nagusia, eta Laura Navas zornotzarra izan da zorteduna, 04.390 zenbakia erosi eta gero. Gaur eguerdian eman diote JAEDeko kideek autoa Laura Navasi.

Etxe kaleratzeen mozioa onartu du Mallabiko Udalak

Mallabian etxe kaleratzerik gertatuz gero udalak jarraitu beharreko protokoloa osatzeko mozioa onartu zuten azken udalbatzarrean. Bildu eta EAJ ekimenaren alde agertu ziren: "Etxe gabetze guztiak denbora mugagabean bertan behera uzteko exijitzen dugu".

"Sabotajeak" Gabonetako argien kontra, Abadiñon

Abadiñon udalak ipinitako Gabonetako argien kontrako "etenbako sabotajeak" gaitzesteko oharra bidali du Jose Luis Navarro alkateak. Erasoaren jatorriaz hausnartu du: "Argi dago, lotsabako batzuen astakeria baino, jaiak boikoteatzeko asmoz aurrez pentsatutako ekintza bat izan dela".

Durangoko Izotz pistak eguneko bostehun bat lagun hartu ditu aurten ere

Durangoko Izotz pistak aurten ere arrakasta handia izan du Ander Gorrotxategi Gazteria eta Kirolak saileko presidentearen esanetan. Durangaldeko merkatari elkarteak antolatzen duen egitasmoak, aurreko urteetan beste bisitari izan ditu, eta 5.638 patinatzaile bildu dira gutxira abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra. Patinatzen ikasteko ikastaroak ere izan dira, eta 640 lagunek parte hartu dute ekimen horretan.

> ZALDIBAR**Espainiako bandera jartzearen kontrako elkarretaratzea, bihar**

Herritar guztiei dei egin die udal gobernua, bihar, 12:00etan, egingo duten kontzentrazioa joateko

> ITSASO ESTEBAN

Espainiako Gobernu Ordezkaritzak lehenengo, eta Espainiako epaitegiek gero, lege-aginduak helarazi dizkiote Zaldibarko Udalarri udaletxean Espainiako bandera ipintzeko aginduz. "Inposizio" horren aurrean desadostasuna adierazteko hainbat ekimen ipini dituzte martxan azken asteetan. Batetik, "jazarpen" hori gaitzesteko, manifestu bat sinatu dute gaur egun zine-

gotzi diren eta aurreko legegintzaldietan udal ordezkari izandako 21 herritarrek. Bestetik, ez-ohiko udalbatzarrean gaiari buruzko mozioa aurkeztu zuen Bilduko gobernu taldeak atzo. Gainera, zaldibartar guztiei dei egin diete bihar, 12:00etan egingo duten manifestazioan parte hartzeko. Herritarren artean atxikimendua sortzen duen sinboloa ikurriña dela azpimarratu eta errespetua eskatuko dute.



"Jazarpena" gaitzesteko, manifestu bat sinatu dute 21 lagunek.

> ELORRIO**Seinaletika berrituko dute, GPSz baserriak lokalizatu ahal izateko**

2013ko aurrekontuetan sartu dute egitasmoa 42.500 euroko kostuagaz; suhiltzaile, anbulantzia eta ertzainei lana erraztuko diete lokalizazioagaz

> M. O.

Udalak auzo eta baserrieta seinalitika berritzea erabaki du, eta aurrekontuetan sartu dute egitasmoa 42.500 euroko kostuagaz. Joseba Mujika alkateordeak esan du auzorik auzo geolokalizazioa egingo dutela, horrela, GPS bidez topatu ahal izateko. "Elorrioren gertatu izan da baserri bat erretzen egon eta suhiltzaileak galduta ibiltzea", azaldu du Mujikak. Suhiltzaileez gainera, anbulantzien, ertzainen eta herritarren bidaiak erraztu gura dituzte horrela.

2013rako, gobernu taldearen iritzi, aurrekontu errealistak osatu dituzte, gastuak murriztuta eta gizarte politikak finkatuta. Aipatzekoa da, hurrengo

aurrekontuak osatzeko prozesu parte-hartzailea egiteko konpromisoa hartu dutela. Bildu pozik agertu da: "Gobernu taldea horretara bultzatu dugu". Koalizioak bere kabuz egin du aurten prozesua, eta 80 lagunek parte hartu dute.

Baina, negoziazioengatik, EAJ kritikatu du: "Ekarpenak batzordeetan aurkeztu eta

2013rako, gobernu taldearen iritzi, aurrekontu errealistak osatu dituzte

EAJk ez du bat ere jaso". Ondorioz, 19 zuzenketa egin dituzte. "Bost baino ez dituzte onartu". Gainera, Bilduk esan du iaz EAJk aurrekontu akordioa ez zuela bete, eta aurten legegintzaldi osorako akordio bat aurkeztu dietela, baina ez dutela erantzunik jaso. Jeltzaleek adierazi dute muturreko posizioak baztertu eta adostasuna lortu gura izan dutela. 22 batzorde eta hiru batzar politiko egin dituztela jakin eragin du EAJk.

PPko Carlos Garciaren absentsioak egin du posible aurrekontua onartzea. %100ean ados egon ez arren, ideia batzuekin ados dagoela esan du Garciak. Adibidez, enplegu plana bultzatzeagaz bat dator.

Txartel berria egin behar da kiroldegirako

Kiroldegiaren kudeaketaz arduratzeko enpresa aldatu da; datuak eguneratu behar dituzte

Udal kiroldegiko erabiltzaileek txartel berria egin beharko dute datozen egunetan. Kontua da, kiroldegiaren kudeaketaz arduratzen den enpresa aldatu egin

dela; udalak BPXport Kirol Zerbitzuak enpresari esleitu dio zerbitzua. Ondorioz, erabiltzaileen datuak eguneratu behar dituzte, azaldu dutenez. Txartel

berria egiteko, zaharra eroan beharko da bertara. Berria heldu arte, zaharra gorde egingo dute erreferentzia legez.

Enpresako arduradunek adierazi dutenez, gutun bat bidaliko diete erabiltzaileei azalpenak emateko. Tarifa berriak ere zehaztuko dituzte; bazkideen kuota mantendu egingo dutela esan dute, eta sauna edo gimnasioa lako zerbitzuetan %5eko jaitsiera aplikatzeko asmoa dute.

A CENTRAL FORESTAL

Baserriarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 94 620 51 87 - Faxes: 94 620 51 94

▶ Berbaz

IÑAKI GARCIA CAMINO | Muskiz, 1958 | Historian doktoreduna eta Arkeologia Museoko zuzendaria



Txelu Angoitia. Gerediaga Elkarte

“*Herritar xumeek ia igarri ere ez zuten egingo Bizkaiagaz bat egitea*”

Azken 30 urteetan eskualdean egindako lan arkeologikoengatik Durangaldeko Teila saria jaso du Iñaki Garcia Caminok

> AMAIA UGALDE

Durangaldea Bizkaira batu zela 800 urte bete dira 2012 amaieran. Erdi Aroan bertoko bizimoduak zelakoa zen jakiteko arrasto ugari aurkitu dituzte Momoition, Urkiolan, Gerediagan edo Argiñetan egindako lan arkeologikoek. Horietan izan da Iñaki Garcia Camino ikerlaria, eta egindako lana aitortzeko, Gerediaga Elkarteak Durangaldeko Teila saria eman dio.

Zelan jaso duzu saria?

Egindako lana aitortzea hunkigarria da, eta jarraitzeko gogoia ematen du. Dena dela, oraindik asko dago ikertzeko eta ikasteko. Historiako karreraren, prozesu historiko handiak ikasi genituen, baina ematen zuen hemen ez geneukala historiari; Erdi Aroko Bizkaiari buruz ezer gutxi genekien. Nafarroari buruz gehiago dakigu, han erresuma zegoelako, baina Nafarroako edo Gaztelako lurralde periferikoak ez dira aipatu ere egiten.

“

Lehen uste zen Erdi Aroan Bizkaiako gizartea arkaikoa eta atzeratua zela; orain badakigu ez zela horrela”

Durangaldeari buruzko idatzi apurrak monastegietan eta agertu ziren, eta botere zentroei lotutakoak ziren; ez ziguten jende arruntari buruz berba egiten. Pertsona anonimoen bizimodua ikusteko bide bakarra arkeologia izan da.

Hogeita hamar urteko lanen ostean, Erdi Aroko bizimoduari buruz datu asko jaso dituzue?

Ezagutza gehiago daukagu; Du-

rangaldean bakarrik 60-80 aztarnategi dauzkagu, eta arrasto ugari ematen dituzte. Lehen uste zen Bizkaiako gizartea arkaikoa eta atzeratua zela garai haietan, ez zela Europako erritmo historikoetan integratu. Orain badakigu ez zela horrela; gizarte dinamikoa zen, zabal eta integratua. Bere hierarkia eta antolakuntza sozialak zituen.

Durangaldea Bizkaira duela 800 urte batu zen. Gaur egungo herriek ez dute garai hartakoen antzik izango...

VIII. eta IX. mendeetan herririka batzuk zeuden, euren eliza eta kanposantuekin. Oraindik ez zuten herri edo parrokia egiturarik. Familia apur batzuk bizi ziren, eta lurretik bizirauteko baliabideak jasotzen zituzten. XI. mende amaieran sare parrokialak sortu ziren eta auzotako batzuk prestigioa lortu zuten. Momoitio, Mendraka, Argiñeta, Andikoa, Miota, Zengotita... Horiek guztiak ordutik hona man-

tendu dira. Abadiñoko erdiguneak, Etxebarriako San Agustinek... auzoak bereganatu eta indarra hartu zuten. Herriguneak geroago sortu ziren, Bizkaiko Jaunaren erabakiagaz. Adibidez, Durangoren kasuan, bidegurutze garrantzitsu batean herria egitea erabaki zuen.

Bizkaiagaz bat egiteak zelako eragina izan zuen Durangaldeko herritarrengan?

Ia igarri ere ez zuten egingo. Erdi Aroko sistema politikoak ez zeukan oraingoagaz zerikusirik. Inoiz esan izan da Nafarroako Erreinua demokratikoa izan zela, baina kontzeptu horiek XIX. mendekoak dira. Politika errege eta jaunaren artean egiten zen; euren arteko harreman pertsonalak ziren. Nekazaritza herria hortik kanpo geratzen zen. Gerra eta ezkontzekin egiten zen politika orduan, eta norbanakoen erabakiak ziren. Kasu honetan, Alfontso VIII.a eta Lopez de Harorena.

Orain Argiñetan zabiltzate indusketetan. Laster laborategiko lana hasiko da. Zer nabarmenduko zenuke han aurkitutakotik?

Argiñetan garrantzitsuena bizileku baten beharrean gabiltzala da. Orain arteko lan gehienak nekropoli eta elizen gainekoak izan dira. Ez genekien bizilekuak zelakoa ziren, hein handi batean, ez geneukalako baliabiderik. Etxebizitzak material gal korrekin egin zituztenez, zuloak

eta aztarna txikiak baino ez daude. Etxeen errautsak, zuhaitz erre batzuk, enbor usteldu bat... Karbono 14aren proba egin eta noizkoak diren ikusi behar dugu. Eraikinen egurra zein zen ikusi gura dugu eraikuntza teknikak ulertzeko, eta lurreko pollen arrastoak aztertuko ditugu paisaia begetala zelakoa zen eta zer ereiten zuten jakiteko. Normalean, indusketez berba egiten denean, harresi aztarnak etortzen zaizkigu burura, baina honek ez dauka zerikusirik.

Durangaldeen urteotan egindako beharretatik zein izan da bereziena zuretzat?

Momoitiokoa. Lehenengoetako izan zelako, baina baita, ordua arte genituen paradigmatik aldatu zituelako ere. Erdi Aroko gizartea primitiboa, erdi nomada eta abeltzaina zela uste zen. Momoitio ikusi genuen ez zela horrela; biztanleak leku batean egonkortuta zeuden, eta materialak ez ziren hain xume eta sinpleak teknologikoki. Interesgarria izan zen lurperatze mota berezi bat aurkitzea. Oizen iparraldean eta hegoaldean, Oizko harrobietatik hartutako harriagaz hilobiak egiten zituzten, eta buruaren alturan zuloa zeukaten. Harri horren gainean errituak egiten ziren eta sua pizten zuten. Su horren errautsak hilobiaren zuloatik sartzen ziren. Ikusi dugu Oiz inguruan unitate kultural bat zegoela; mendiak jendea banatu beharrean, batu egiten zuten.

> GUTUNAK

 zorionak@anboto.org
 eguazteneko 17:00ak arteko epea
**> GUTUNAK**

Abadiñotik bota gaituzte, Durangora goaz

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioko lankideok gutun honen bidez salatu nahi dugu Abadiñoko Udalak, bere alkatearen bidez, azken hilabeteetan gurekin izandako jokaera. Jokaera horren ondorioz, Topaguneak Abadiño herria utzi du 2012ko abenduan, eta Durangora eraman du bere egoitza. Abadiñoko alkateak zuzendutako jazarpen baten biktima izan gara, eta hori azaldu nahi dizuegu ondoko lerroetan.

Topaguneak 2001 urtetik izan du egoitza Abadiñon, urte hartan orduko udal arduradunekin eta Construcciones Atxarte enpresarekin egindako akordioari esker. Hamar urteotan gustura egon gara Abadiñon gure lana garatzen, inguruko auzotarrarekin giro onean eta udalarekin inongo arazorik izan gabe. 2012ko udaberrietik aurrera, berriz, auzokide baten ustezko salaketa batzuen eraginez, alkateak jazarpen onartezina egin dio herrian 20 lanpostu eta jarduera ekonomikoa ekarri dion erakunde honi. Ustezko salaketa diogu, Topaguneak momentu batean ere ez duelako salaketa horien kopiarik jaso, beraz, salaketa horien konstantziarik ez daukagulako.

Auzokidearen hitza oinarri hartuta, eta ustezko salaketaren egiazkotasuna frogatzeko inolako ahaleginik egin gabe, era guztietako neurriak (batzuk legezkoak, beste batzuk zalantza-koak edo zuzen-zuzenean legez kanpokoak) martxan jarri ditu alkateak jazarpena gauzatzeko. Gure lan-jardun ordutegia mugatzeko eskaria egin digu (eta guk errespetatu), bilera gelatan alfonbrak jartzeko eskatu digu (eta guk bete), udalak urteetan mantendu duen lagapena bertan behera utzi du (eta guk jabearekin tratatu zuzena egin dugu bertan jarraitu ahal izateko) eta inori eskatzen ez zaizkion ingurumen-agiri eta txostenak eskatu dizkigu, behar bezala erantzuteko denborarik eman gabe. Adibide batzuk dira, baina beste asko daude eta batzuk larriak dira: urriaren 25ean lantaldeko zortzi lagun ari ginen bulegoan lanean, gure funtzionamenduan onartua daukagun aukerari jarraituz, eta alkateak udaltzaingoa bidali zuen bulegora, bertan geunden guztiak irteteko aginduz (lanleku pribatu batean, udalak inongo eskumenik ez duen espazio batean, egotea galaraziz); eta azken, abenduaren 17an 10 eguneko epean lanlekutik irteteko agindua zuen alkate-tza dekretua jaso genuen.

Bitartean, aipatutako auzokidearen presioa ere nabarmentzekoa izan da. Inongo frogarik gabeko salaketa faltsuak jartzeaz gain, egunero-egunero sentitu dugu bere presio jasanezina. Era berean, gainontzeko auzokideen aldetik jaso dugun babesa ere aipatu eta eskertu nahi genuke lerro hauetan.

Azkenik, azken bi hilabeteetan gure bulegorako sarrerako atea birritan aurkitu dugu saboteatuta, zotz eta pegamentuz izorratuta. Behar den lekuan jarri dugu honen gaineko salaketa.

Eta horrek guztiak eraginda... bagoaz, Durangora goaz. Abadiñoko alkateak (eta ez Abadiñoko herritarrek) bere herrian 20 lanpostu dituen enpresa baten lana oztopatu nahi duela ikusita, bagoaz. Azken hilabeteetan jasan dugun presioa eta jazarpen guztiz gaitzesgarri hau ahaztu nahian, bagoaz. Zorionez, Durangoko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker, badugu nora joan eta beraz, 2013ko urtarriletik aurrera, Topagunearen jarduera Durangon garatu ahal izango dugu.

Iker Martinez de Lagos eta Joxe Rojas Granja, TOPAGUNEko lankideen izenean

Urte berri, itxaropen zahar!

Mahai bueltan jarri eta nire aurrean amonaren aurpegi zaharkitu eta zimurtua dut begira. Nire ezker aldean, lehengusua eta mahaiaren beste izkinan, mahaiburu, aitona. Gurasoak, zutik, batetik bestera eta beste guztiak tenedorea eskutan jatekoaren zain.

Konturatzen naiz, urteek aurrera egiten duten arren, gauza batzuek ez dutela aldaketa nabarmenik izaten eta ni horietako baten protagonista naizela.

Ume nintzen garaian, mahai inguruan gaurko antzean jartzen ginen, ezberdintasun batekin, egun, aulki huts bat dugula. Berdinaren inguruan eztabaitzen. Ez, ez da politika! Gure etxean gai hori ez da mahai bueltan izaten. Kotilloak, horiek bai!

Gizartean, azterketa bat eginda dago, mahai bueltan erabiltzen den gai erabilienetakoa, %60, kotilloak direla eta gu ez gara horietaz libratzen. Denarekin enteratu naiz, herrikoaz, nazionalaz eta baita internazionalaz ere.

Baina beste kontu bat ere ez da aldatu gure etxean. Gaurkoan ere, Urte Berriarekin batera erresaka eta aulki huts bat izan dira. Lehenengoak badu soluzioa; besteak, herri ekimen gogorra beharko du egia bihurtzeko.

Amonaren zimurrek argi erakusten dute urteetako sufrikario eta indarra: lau seme-alaba, 5 hobe esanda, bat zendu arren kontatu behar da eta. Denarekin aurrera egiteko izan duen indarraren adibide argia da. Zimur bakoitzak bizitzako une bat dakar berarekin eta oraindik ere zimurtzen ari da; etxeko bakoitzak, dispersioaren ondorioz egiten dugun bidaia bakoitzean, errezoak eta zimurrak gehitzen baitzaiz-

kio. Nire barruko ahotsak dioen moduan, hutsik dagoen aulkia betetzen den egunean amonaren zimurrak gutxituko dira. Hori bai, denboran ez luzatzeko herriak du giltza eta senideok indarra. Nire amonaren zimurrengatik eta berak bezala, dispersioa pairatzen dugun senideon sufrimendua gelditzeko. Ezin ahaztu, gaixo dauden preso senideak, kondenak beteak dituztenenak, urte luze guztietan errepidean kilometroak egin dituztenengatik edo hil zaizkigunengatik. Urtarrilaren 12an, Bilbon dugu zita. Kaleak bete behar ditugu, espetxeak husteko.

Besarkada beroa zuri, espetxean edo ihesean zauden horri!

Zuengatik guztiongatik irabaztera goaz!

Endika Zarrabeitia, Eneko Zarrabeitia preso politikoaren anaia (Abadiño)

Olentzero, Durango eta esperpentoa

Olentzero, Olentzaro, Onentzaro, Onontzaro, Nafarroako mendialdean neguko solstizioarekin lotutako ohitura dugu, jatorri paganoa eta kristautasunaren aurrekoa daukana. Zenbait tokitan (Lesakan) ikazkin arloarean irudia hartu du, baina Leiztan, esaterako, andrazko itxura ere hartu izan du. Larraunen ostera, izaki gaiztoa da.

60ko hamarkadan, Euskal Herri berpiztu baten esperantzaren, ekinean hasi ziren euskaldun prestuak euskaltegi, ikastola, kultur talde eta abarretan. Besteren artean, gure lurra bizirik iraun duten ohitura zaharrak berreskuratzeari ekin zioten, denon ondare direlakoan. 1957an Iruñera eroan zuten Lesakako ohitura, eta handik hedatu zen Euskal Herrian barrena. Helburua: sustrai zaharretatik kultura garaikide bat sortaraztea.

Durangarra naiz jaiotzez. Akorduan daukat zelan, ume ginela, hainbat Olentzero ibiltzen ziren Durangon kalerik kale gabon eguneko arratsaldean. Olentzero xumeak izaten ziren, oroimenak kale egiten ez badit behintzat, batean hezur-haragizko gizona gurdi gainean, tiraka astoa zuela; bestean panpina lau lagunek lepoan zeramatela. Gogoan daukat baita barrote arteko Olentzero ere. Inguruan txistulariak, eta jendea, baita gu geu ere, kantuan: "Hator, hator" eta "Olentzero joan zaigu". Akordu atsegina.

Iruñean bizi naiz. Ikustekoa da hemen zelako ahalegina jartzen duten Olentzeroren desfileak egiteko. Abenduaren 23an auzoetakoak izaten dira, eta 24an, Iruña erdigunekoak. Gure eskolako guraso talde batek antolatzen du Iturruma auzokoa. Goizean puska-biltzea (dirua zein gosaria egiteko jeneroa eskatzea) musikari eta dantzariekin. Arratsaldeko desfilean joaldunak, gaiteroak, txistulariak, dantzariak, artaldea, korua eta panpina. Jende ugari irteten du desfilea ikustera: gazteak, gurasoak, adinekoak... "Hemen gaude gu, hau da gure erritua" esan guran-edo. Tarte-ka, geldialdiak, Olentzerori dantzan egiteko edo kantuan ekiteko.

5 urteko seme nagusia jaio zenetik izan naiz Durangoko Gabon eguneko desfilean. Hasiera-hasieratik egin zait arraro urtero programan bertan irakurri daitekeena: ordubete eskaseko desfilea, arrapalada batean egiten dena, 17:00etatik 18:00etara (goitzo...), Alde Zaharrean sartu-irten laburrekoa eta "euria eginez gero, ez da desfilerik egingo". Errege Magoei ez ei die kalterik egiten euriak...

Aurten (eta ia ere bai) antzerkia, Barakaldoko Kalika Teatroren eskutik. Giza-legezkoa bada ere jendaurrean plazaratzen denari errespetua izatea, eskaini ziguten ikuskizunari penagarri deritzot. Badaezpadako euskarazko antzezlan aspergarrian, menditik jaitziko ikazkin arloa desitxuratuta aurkeztu ziguten, ustezko eta azaleko modernotasunez estalia, operako ariak eta mexikar kantua kantatzen, hari barik, zentzu barik.

Esperpento bat zen ikusi genuena. Itxurakeria iraingarria. Inpostura. Guraso askok egin zuten alde gu egon ginen tokitik, haserre ikusten zebiltzan harekin. Umeak ere altxatzen, asperduraren asperduraz. Gero, kanpoaldean ere eduki genuen aukera jende artean berba egiteko, eta amorrua nagusi zen.

Ez da asko eskatzen dena. Ikazkin mitologikoarekiko errespetua, bere arloetan, mozkorrean, zorroandian. Desfile bat, duina, mendia urira ekarrita, Alde Zaharreko goienak eta barrenak zeharkatuko dituen, astitsu, parte-hartzailea, ikusle-jarraitzailea kantuan jarriko duena. Udala da antolatzaile, eta berau osatzen duten talde politiko zein teknikariek badaukate honi dagokionez zer hausnartua. Oraingo eredu honek utziko du arrastorik gure umeengan? Zer dauka ikustekorik Durangon antolatzen den horrek solstizioagaz, basajendea uriratzeagaz, ohitura zaharrekaz?

Eta hausnartzeko gogorik ez badago, bada, borondate oneko euskaldun gurasoak errebelatu gaitzen, eta eskaini diezaiegun gure seme-alabei gutxieneko batzuk betetzen dituen ikuskizuna. Merezi dute eta. Urte oso bat daukagu tarteko. Ni neu gertu nago. Nirekin hartu-emanetan plantatu gura duenak, jo dezala Anbotora eta bertan emango diote modua.

Aitzol Mendiola Agirre

Iritzia

> GUTUNAK



zorionak@anboto.org
eguztzeneko 17:00ak arteko epea

2 + 1 = 7

Horixe da, dirudienez, Udalaren buru diren, Ana Otadui eta Joseba Mujikak, oinarri hartzen duten batuketa. Eta izan ere, horixe da udal gobernura eraman zituen eta han iraunarazten dien batura. Eta 2 + 1 esaten dugu, gaur egunera arte behinik behin, udaleko gainerako ustezko arduradunei buruz ezertxo ere ez dakigulako. Carlos Garcianen -batuketa horretako "1" horren- presentzia hutsak bermatzen die bozketak irabaztea; eta egitate hori nahikoa arrazoi da haren mendera jarri eta une oro hari ohore egiteko. Haren graziei barre egiteko, eta irentsi beharreko guztiak irensteko. Egia esan, gutxi, oso gutxi ardurak die norbanako horrek Elorrioren izena belztea, egun batean bai eta bestean ere bai. Adibide bat ematearren, gezurretan oinarrituta Txintxirri Ikastola iraindu eta hamabost egunera, elkarrekin agertu ziren jaiei hasiera emateko, balkoi berean, irribarretsu. Gaitzezenik? Ez eta bat ere. Boterearen prezioa da hori. Batzorde batera berandu iristen dela? Isil-isilik geratu eta ordura artekoa errepikatzen diote, haserretu ez dadin. Bilera baten edian, sakelakoa ateratzen duela Twitterren bere txio ganorabakoak bidaltzeko? Isiltasun osoa. Bilera amaitu aurretik alde egiten duela? Inolako eragozpenik ez. Botoa haiei eman eta haien alde agertzen den bitartean, bost axola. Eta BILDUREKIKO arbuioan islatzen den demokraziarekiko mespretxu horretatik, dagoeneko joanda zeudela uste genuen garaietako sasoi latzenetara iritsi gara: lan-bulegoetako okultismoa, informaziorik eza, Bilduko zinegotzietatik daturik ez emateko agindua.

Bai, gaur gaurkoz, Udaleko talderik bozkatuenak mugatua du informaziorako irispidea. Ez dute ezertarako kontuan hartzen, ez zaie informaziorik helarazten. Otadui eta Mujikak erabakitzen dute... Garcianekin batera, jakina. Eta beharrezkoa bada, mespretxuz tratatzen dituzte. Hori bai, ondoren, guztion poltsikotik ordaindutako udal-propagandak direnak eta ez direnak esango ditu parte-hartzearen eta elkarrizketaren txapeldun horiei buruz. Baina egia bakarra da BILDUKOEN proposamenak zuzen zuzenean paperontzira bidaltzen dituztela; akordioak -izan direnean- hurrengo minutuan urratu dituzte, eta hartutako konpromisoak inolako lotsarik gabe hautsi dituzte. EAJ gauza bakarrak kezkatzen du: etekin politikoak, eskusibotasunak, beraren irudiak eta berarenak baino ez. Bitartean, bat-batekotasuna eta iguripenik eza dira gobernu-jardunaren jaun eta jabe. Elorrio herriaren interesak alderdiaren interesekin ordeztu dituzte guztiz.

Beste adibide bat: aurtengo udazkenean BILDUK udal-aurrekontuak elkarrekin egiteko prozesua jarri du abian eta agintari jeltzaleei ez zaie, bada, bereziki gustatu. Ez dute haien akatsetatik ikasten eta oraingoan, parte-hartzearen eskusibitatea bereganatu nahi dute.

Gertukoa izan arren, urrun geratzen da Ezker Abertzaleko aurreko gobernu taldeak PGOU eta beste hainbat gai garrantzitsuren inguruan erakutsitako ausardia eta akordio borondate eta gaitasuna.

BILDUREN borondatea elkarrekin lan egitea eta elkar ulertzeko gu-neak bilatzea izan da hasieratik. Elorrio, gauza guztien gainetik. Baina erantzun gisa, atearrekin muturrean eman diete. Luzatutako eskuari uko egin diote PPKoa ez haserretzeko, eta bozketak irabazten jarraitu ahal izateko. Herriaren borondatea bahitu dute, eta ez dago hau aldatuko delako iguripenik. Zoritzarrez ondorio bakarra dugu; ondo antolatutako oposizioaren bidez, benetako parte-hartzearen bidez, etengabeko kritika eta salaketa eginez baino ez dugu lortuko eskuin-zaleok Elorrioren eraiki nahi duten inposaketaren harresia eraistea.

Elorrioko Ezker Abertzalea

Durangoko Olentzero eta Mari Domingi

"Non dau gure Olentzero? Aldatu egin deuskue... Erdaraz egiten dau bere kideekin" Komentario asko entzun eta zeresan handia eman digu aurtengo Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrerak. Badakigu zaila dela denon gustua egitea eta, agian, zailagoa Olentzero beraren irudi ideala aurkeztea. Izan ere, euskal herrietan azken urteotan zenbait aldaketa proposatu eta egin dira Olentzeroren inguruan. Kixmi jaio dela iragaritzen menditik zetorren jentila, Gabonetako opari banatzaile bihurtu genuen, beste herrialde batzuetakoen ordeztuko. Geroago, "pipa hortzetan duela" agertzeak irudi txarra ematen zuela-eta, kendu egin zitzaion. Eta orain, bikotekidearekin agertzen zaigu. Tira, aldaketa ulergarriak izan daitezke edo ez. Berrikuntzak berrikuntza, kontua da apurka-apurka suntsitzen ari garela Olentzerok euskaldunentzako duen sinbolismoa, eredu eta, umeei esker, hartu duen sinesgarritasuna. Hori da, behintzat, aurtengo ekitaldia ikusi eta bizi ostean geratu zaigun kezka.

Oker ez bagaude, azken urte bietan antzerki talde bat hartu du udalak Olentzero eta Mari Domingiren jaialdia egiteko. Uste dugu ez duela asmatu, eta hainbat arrazoi ditugu hori esateko: - Oholtza gaineko antzerkia luze egiteaz gain, desegokia izan da. Olentzero eta Mari Domingi moderno eta orojakile azaltze nahiak desitxuratu egiten du mezua eta zalantza sortzen ditu, zertan datorren ez dakigula. Olentzerok bere kideekin izan duen harremana gaztelaniaz izan da, guk entzun duguna, behintzat. Horretan ez dute eredu ona eman.

Beraz, Olentzeroren eta Mari Domingiren lagunak izateko arazorik ez badugu ere, bai gurako genuke gizon-emakume maitagarriak eta euskaldunak izatea, mezu argia dakartenak, umeengana erraz iristen dena, gertukoa... Halaber, etorrera eta jarduna ere neurrikoak izatea gurako genuke, parafernalia asko barik eta gure kulturarekin erabat loturikoa, tradizioak eta modernitateak bat eginda.

Berbaro elkartetik horren alde egingo dugu.

Berbaro elkartea

Urte Berriak ezer berririk ez!

Beste behin ere urte berriak ez du ezer berririk ekarri! Oraingo honetan, Durangon aski ezaguna den Lupetza kafetegiaren eskutik egutegi bat heldu zaigu. Publizitate sexistak, jendarte heteropatriarkal honen isla den heinean, rolak birproduzitu eta aldi berean sustatu egiten ditu. Egunerokotasunean eredu zapaltzaile eta baztertzaila hauek desagertaraztea guztion erantzunkizuna da!



Durangoko txoko feminista

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ

EAJ



Urte barri-barri...

Heldu da jada 2013. urtea, sartu gara urte barrian. Kezkatuta dago gure gizartea, eta logikoa da gainera. Besteak beste, orain dala 15 egun munduaren amaiera iragarri eban profeziatik bizirik urten dogu, eta, egunero-egunero, Estatu Batuetako amildegi fiskala edota *prima de riesgo* entzutetsua gaintzen ditugu. Krisialdi ekonomikoa gogortu egingo dala aurreikusitako dabe eta horrek guztiak gure bihotzak estututa daukatz.

Aurrean dogun egoera iluna da baina, ez daukagu aukerarik itxaropenean bizi izateko? Sasoi gogorragoak doguz, egia da, baina gogorragoak izango dira itxaropenez, kemenez eta indarrez jantzen ez bagara. Eta horretara egingo dogu, Durangoko Udalean behintzat. Aurtun, etorkizunari laguntasuna emateko asmotan, hainbat proiektu jarriko doguz martxan, eta, zoritxar-igarleen kritikak jaso aurretik, ez dira bakar-bakarrik gure herriak zementuz betetzeko. Gure herriarren bizi-kalitatea hobetzeaz gain, lanpostuak mantentzeko iturri be badira, hain zuzen be, ez dagigun ahaztu, obretan enpresek langileak jartzen dituztelako non-bait, eta euren etxetako ekonomia mantendu egiten dalako. Eta zeresanik ez dago, Administrazioen diru-iturri garrantzitsua dira enpresek ordaintzen dabezan zergak: lan barik ez dago enpresarik, enpresa barik ez dago zergarik eta zerga barik Administrazioak ez dauka diru-sarrerarik herrian inbertitzeko. Oso eragiketa simplea da.

Gure Durango maitean, hurrengo hilabeteetan obra barriak loratuko dira: UrkiHegoalde (gure barruko zirkunbalazioa) proiektuaren bigarren faseari ekingo deusogu; Frai Juan Zumarraga eta Alluitz kaleen arteko errotanda barria egingo da (trafikoa arinduz); S. Fausto Zentro Zibikoaren hasierako lanak burutuko dira; Montebideo kaleko azken zatia atonduko da oinezkoen eta merkataritzaren mesederako; Tabirako igerilekua lotzeko bizikleta bidea gauzatuko da eta futbol zelaia ere bukatuko da. Ekaitzari aurre egia eta ausardia erakutsiz.

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



ABADIÑO



ATXONDO



BERRIOZ



DURANGO



ELORRIO



IURRETA



IZURTZA



MALLABIA



MAÑARIA



OTXANDIO



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko urtarrilaren 11
11. urtea - 484 zk.

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna,
Aitor Lopez.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia,
Amaia Ugalde, Ane Elordi.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

> ELKARRIZKETA



“Asko inbertitzen ari dira Dubain zineman eta publizitate arloan”

‘The Zealot’ filmagaz saria lortu zuten Irune Gurtubai elorriarrak eta Ben Sharrock eskoziarrak Lekeitioko Zine Bileran. Dubaitik erantzun dute

> ITSASO ESTEBAN

Dubain zaudete. Zerk eroan zaituzte bertaraino?

Irune: Dubai hazten ari da, eta gustatzen zaidana egiteko hemen aukera gehiago daukadala ikusi nuen. Kamera lanetan ari naiz, bai eta produktore lanetan ere, *freelance* moduan. Etxean hori lortzea zaila da, batez ere orain! Asko inbertitzen ari dira Dubain orain, zineman eta publizitate arloan.

Ben: Arabiar ikasketak egin nituen eta harrezkero, Ekialde Hurbilera etorri nahi izan dut bizitzera; Dubai iruditu zitzaidan hiri egokiena. Zuzendari sortzaile lanetan ari naiz publizitate konpainia batean, eta *freelance* lanak ere egiten ditut. Dubaiko Gobernuarentzat iragarki bat grabatzen ere badihardugu Irunek eta biok, zuzendari lanetan ni, eta kameralari Irune.

‘The Zealot’ zuen lanak argumentuzko saileko saria jaso zuen Lekeition. Zelan hartu zenuten saria?

Ben: Ohore itzela izan da! Erdi euskalduna sentitzen naiz orain, eta oso sentazio ona da gure la-

“

Gustatzen zaiguna egiteko hemen aukera gehiago dauzkagu”

nagatik Euskal Herrian erreko nozimendua jasotzea. Filmean euskara ingelesarekin nahastuta erabili dugu. Bizitzak gehiago ematea nahi duten pertsona biren interakzio arraro, argi eta antzertierra da *The Zealot*. Pertsonak eta objektuak zelan azterten ditugun erakusten du.

Zuen ustez, zer gustatu zitzaion epaimahaiari?

Irune: Nire ustez, filmaren estiloa da indargunea. Oso estilo zehatza dauka, istoriorako oso aproposa. Filmaren estetika ere ona dela uste dut: kalitate oneko irudia lortu genuen.

Ikus al daiteke Interneten filma?

Irune: *The Zealot* ez dago oraindik ikusgai. Zinemaldietara bi-

dali nahi dugu, eta filma Interneten egoteak ez du horretan laguntzen... Facebook orrialde bat badaukagu (www.facebook.com/thezealotfilm) eta trailerra bertan dago ikusgai.

Aurretik parte hartu al duzue Lekeitioko zine bileran?

Irune: Duela urte bi *Hutsik* filmarekin sormenaren saria irabazi nuen Lekeition, eta Huhezinema jaialdian ere hartu izan dut parte.

Zinemari loturiko zer proiektu daukazue orain esku artean? Eta zer amets?

Ben: Euskal Herrian eta Eskozian kokatutako luzemetrai bat idazten ari gara. Gainera, Dubain kokaturiko istorio baten laburmetrai batean ere ari naiz lanean. Zinemaren bidez istorioak kontatuz bizimodu jasagarria ateratzea dut amets.

Irune: Luzemetraiaz gain, la-

“

Kalitate handiko irudia lortu genuen Lekeitiora bidali genuen filmean”

burmetrai bat dut esku artean. Gidoia bukatuta dago, baina orain aurreproduzio prozesuan dago. Bestalde, kamera bezala eskarmentua lortzen ari naiz publizitate munduan. Ametsa, Benek esan duen bezala, zinematik bizitzea da! Gure kultura eta hizkuntza erabiliz, ahal izanez gero.

Eskoziako Screen Academy zinema eskolan elkartu ziren sortzaile biak



Produktore lanetan aritu zen ‘The Zealot’ filman Irune, eta gidoilari eta zuzendari lanetan Ben

Eskoziako hiriburuan, Edinburgon, ezagutu zuten elkar Irune Gurtubaik (Elorrio, 1987) eta Ben Sharrockek (Edinburgo, 1988) Screen Academy Scot-

land zinema eskolan. Elkarrekin burutu zuten 2012ko Lekeitioko Zine Bileran saritutako *The Zealot* filma: produktore lanetan aritu zen Irune, eta gi-

doilari eta zuzendari Ben. Filma pentsatu eta grabatzea oso esperientzia atsegina izan zela diote biek, eta emaitzak asebeste ditu, gainera.

Dubain bizi dira orain biak, gustuko lanetan dabiltzala: zinema pentsatu eta ekoizten.

> AURKEZPENA

Formatu eta diseinu berriko liburuxka San Agustingo nobedadeak batzeko

Durangoko San Agustin kulturgunearen ekainera arteko programazioaren berri emateko kaleratu dute formatu berriko liburuxka. Datozen hileetan antzokia beteko duten 15 ikuskizunen berri eman dute



Arantza Arrazola kulturguneko kudeatzailea eta Jon Kepa Garro zinegotzia, liburuxka berria eskuartean dutela.

> ITSASO ESTEBAN

Formatu eta diseinu berriko programazioagaz hasi dute, Durangoko San Agustin kulturgunearan urtea: aurretikoa baino liburuxka handiagoan eta kulturzaleari planifikaziorako baliabide gehiago eskaintzeko asmoagaz emanago dute aurrerantzean antzokia beteko duten emankizunen berri. Liburuxka erakustera, eta urtariletik ekainera arte San Agustinek hartuko duen kultur egitarauaren aurkeztera agertu dira Arantza Arrazola kudea-

J.K. Garro: "Esfortzu berezia egin dugu kuota ez igotzeko eta bazkideen abantailak mantentzeko"

tzailea eta Jon Kepa Garro Astarloa Kulturgintza erakundeko arduraduna, asteon.

Seihileko honetan, iazkoan baino lau ikuskizun gutxiago

izango dira, Garrok azpimaratu duenez, 15 guztira. Udalaren ordezkariak azaldu duenez, "esfortzu berezia egin dugu urteko kuota ez igotzeko eta bazkideen abantailak mantentzeko". Aretoreen bazkide egiteak dakartzan onurak gogorarazi dituzte (sarre guztietan %25eko deskontua, urtean ikuskizun bi dohainik, etab.), eta bazkide egitera gonbidatu dituzte kulturzaleak.

Arantza Arrazola antzokiaren kudeatzaileak esan duenez, "eskaintzen ditugun ikuskizunen

kalitatea mantentzea lortu dugu, bai eta sentsibiltate eta gustu guztientzako moduko egitaraua osatzea ere". Guztira, helduentzako hamar eta umeentzako bost emanaldi izango dira ekainera arte, San Agustinen gozagai: umetxoentzako ikuskizunak, dantza, antzerki klasikoa eta komedia, besteak beste.

Guztira, helduentzako hamar eta umeentzako bost emanaldi izango dira ekainera arte, antzokian

Liburuxkan banan-banan azalduta datozenetatik hainbat hitzordu nabarmendu ditu Arantza Arrazola antzokiko kudeatzaileak: zapatu honetarako antzezlan klasikoa, Euskal Herrian ekoizirikoa *Aquí va ha pasar algo* komedia, Carmen Rocha madrildarraren *Sueño de una noche de verano* balleta, *Nuestra señora de las nubes* "harribitxia", Pepe Viyuela, Bergarako Kantinelas Teatro taldearen umetxoentzako *Urtaroekin jolasten...*

Durangaldeko antzezlanak Bereziki nabarmendu beharreko Durangaldeko antzerkiaren beste hitzordu bi ere antolatatu dituzte San Agustinen: Zornotzako Markeliñeren *Hareazko ipuinak* lanaren urtarrilaren 20ko emanaldia, eta Abadiñoko Gorakada taldearen 25. urteurreneko erakusketa eta *Munduari itzulua* umeentzako antzezlanaren otsailaren 17ko emanaldia.

GEURE DURANGALDEA

JOSE MARTIN URRUTIA "Txotxe"

Irakaslea



Pedalei eraginez

Orain dela bost hilabete alforjak, kamping denda eta sukaldetxea bizikletan kargatu eta etxetik Marrakecherantz abiatu nintzen. Aurretik kilometro asko eta beti ilargia lagun, hegorako norabidea hartu nuen. Alforjak ilusioz kargaturik nituen eta burua, aldiz, zeharo nahastuta: urtean eginiko lanak, bueltan egin beharrekoak, sistema hau agortuta dagoela, krisi ekonomikoa, gidoi berriren bat idatzi beharra... eta erretzeari uzteko erabakia behingoz hartu behar nuela. Bizikletak badu horrelako "sen" ukitu bat, eta ideiak antolatzen joan nintzen. Lehenengo helmuga Almeriako portua zen, eta gezurra badirudi ere, 1.400 km-an aipatzeko moduko trafikorik ez nuen aurkitu. Ibilbidea bigarren mailako errepideetatik egin nuen. Zer ezberdina den mundua autobideetatik edo bide nagusietatik at!

Albaceteko probintzia gurtzatzen, burua borbor, banke txeen kalterako bertatik diru guztia atera beharko genuela pentsatzen hasi nintzen. Gibraltarreko itsasartea gauak ematen duen babesarekin gurtzatu nuen, magrebiartarrez inguratutik, eta zubi bat behar zena zergatik bihurtu den hilerria pentsatu nuen zigarro bat konpartitzen nuen bitartean.

Bizkarra gero eta beltzago, Afrika hain gertu izanda, zergatik ez eman aukera eskoletan arabea ikasteko? Bide bazterrak, erreka ondoak, herriak, hiriak bizi-biziak aurkitu nituen, parkeak, kafe-tegiak, azokak... Herriarrek oraindik kaleak euren harremanetarako erabiltzen zituztela ikusiz, gu non demontre ezkututzen garen pentsatzen hasi nintzen. Konturatu orduko hegoak irabazi ninduen eta Marrakecheko plazan nengo, bizkarra, hankak eta sudurra beltz-beltz eginda. Dulzaina joleak, saltinbankiak, titiriteroak, tximinoak, eskribauak, dantzariak, petrikiloen proklamak, motorren zaratak agurtu ninduten eta nik harriturik, beste mundu bat posible dela pentsatu nuen.

> LITERATURA

Hamargarrenez antolatu dute Iurretako sariketa

Iurretako Bibliotekak antolatu du literatur sarien X. edizioa. Urtarrilaren 25era arte dago zabalik

> I.E.

Urtarrilaren 25era arte, Iurretako Herri Biblioteketan bertan, edo biblioteka@iurreta.net helbidean jasoko dituzte lehiaketan parte hartu gura duten idazleen lanak. Ohi bezala, Iurretan erroldatuta dauden edo herriko ikastetxearen batean ikasten duten haur eta gazteek, eta Iurretako zein kan-

poko helduek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

Hamargarren edizioa beteko du Iurretako Literatur Lehiaketak aurten, eta komiki, bertso paper eta ipuinen sailetan banatuko dituzte sariak.

Epaimahaiak lan guztiak aztertu eta gero, maiatzean banatuko dituzte sariak.



Iazko sari banaketa, Ibarretxe kultur etxean.

PLATERUENA

PLATERUENA

URTARRILA

2013 EGITARAU

www.plateruena.net**UMEENTZAKOIKUSKIZUNA**

IRRIEN LAGUNAK

Kultura plazara

17:00etan. Sarrera: 5€. Harpidedunak 3€ (Berbaron)

**BIDEOEMANALDIA**

HERRIRA LIPDUB 3D

20:00etan. Sarrera DOAN

**DOKUMENTALEMANALDIA**


"Hutsaren gainean dantzan". Txirrita. Sladdline-aren historia. 60 min. Euskaraz.
 "Un mundo perdido". Adolfo Madinabeitia. Venezuelako Tepuyeri buruz. 41 min. Gaztelerez.

20:30etan. Sarrera DOAN

**MUSIKAKONTZERTUAK**

LOKALETIK AT
 EKAITZA (Munitibar)
 ETORKIZUN BELTZA (Gemika)
 SUGOI (Elorrio)

22:00etan. Sarrera DOAN

**DOKUMENTALEMENALDIA**

"Lotus flower tower". Goxeri. Kanadako eskalaezin zirkoa. 40 min. Euskaraz.
 "Alpinismo de dificultad en Pirineos y Alpes". Mikel Zabalza, 45 min. Gaztelerez.

20:30etan. Sarrera DOAN

**MUSIKAKONTZERTUAK**

SEI URTE
 + LINEA 2

22:30etan. Sarrera: 6€

**MUSIKAKONTZERTUAK**

LENDAKARIS MUERTOS + PORCO BRAVO

22:30etan. Sarrera: 10/12 €

**MUSTXAPELKETA**

EUSKAL HERRIKO
 V. MUS TXAPELKETA

Izen ematea: Plateruenean (20€ bikoteko)
15:00etan.**ARDO DASTAKETA**

LAUNA UPATEGIA

Gonbidapen bidez. Eskara egiteko:
kultura@plateruena.net

20:00etan.

**DANTZALDI BILTARIA**

AIKO ERROMERIA

www.aikotaldea.com

19:00etan. Sarrera DOAN

**KANTUZALEENTXOKOA**

KANTULAGUN

20:00etan.

**BAKARRIZKETA**

RAUL CIMAS
 JULIAN LOPEZ

22:00etan. Sarrera: 14/16 €

www.plateruenasarrerak.eu

OTSAILAN DATOZENAK: 08 GAU ELEKTRONIKOA 15 LAS GRECAS 22 XABIER MONTOIA & RAFA RUEDA



> MUSIKA

Duela urte bi bira amaitu zuen oholtza berean aurkeztuko du SeiUrtek 'Atlantida'

Durangoko Plateruenean joko du, urtarrilaren 18an, SeiUrte Berrizko taldeak: duela urte bi bira itxi zuten lekuan. *Atlantida* izeneko seigarren diskoa aurkeztuko diete Plateruenetik, Durangaldeko zaleei



Elizondon eman zuten joan zen asteburuan bira berriko lehenengo kontzertua.

> ITSASO ESTEBAN

Durangoko Plateruenean eskainiko ditu SeiUrte Berrizko laukoteak *Atlantida* diskoko kantak, datorren barikuan. Bi urteko geldialdiaren aurretik, hain justu oholtza horretatik eskaini zuten azken kontzertua, eta Iokin Elortza abeslariaren berbetan, berezia izango da Plateruenean: "Zuzenekoetara bueltatzeko gogo itzela daukagu, eta Plateruena gure etxea bezala sentitzen dugu, beti oso ondo tratatu gaituztelako bertan". Elizondon eman zuten joan zen asteburuan bira berriko lehenengo kontzertua.

Atarrabian dute hurrengo kontzertua, eta ez daukate beste hitzordurik momentuz: presarik barik doaz. Kontzertu gehiegaz gogaitu baino, nahiago dute bira luzeagoa egin.

Madrilen Dinero taldeagaz diharduen Ekain Elortza taldekideak grabatu du *Atlantida* diskorako bateria, baina zuzenekoetan Gorka Mendizabalek jardungo du bere ordeaz, Julen Oarbeaskoa, Iokin eta Iñaki Elortza taldekideekin.

«Apur bat harrituta ere bagaude diskoak izan duen harrerarekin»

Iokin Elortza abeslariak egin du taldearen bozeroale lana. SeiUrteren seigarren diskoak izan duen harreragaz oso pozik daudela dio berriztarrak

> I.E.

Zelan ikusi zenuten jendea Elizondoko estreinaldi hartan?

Urrun samar daukagu Elizondo, eta norbaitek ezagutuko ote gaituen zalantzarekin joan ginen, nahiz eta Gatiburen aurretik jota, badakizun jendea egongo dela. Gustura geratu ginen kontzertuagaz: entzule bat baino gehiago hurreratu zitzaigun gure aurreko diskoak dauzkala eta berria oso gustuko duela esanez.

Durangoko Axzoka bueltan ere giro berezian jotzeko aukera izan zenuten, ezta?

Bai, Ahotsenean jo genuen eguerdiko 12:00etan. Orduetegi berezi horretan ere jendea egon

zen, oso kritika onak jaso genituen, eta oso polita izan zen.

Ondo hasi da 'Atlantida'.

Egia esan apur bat harrituta ere bagaude diskoak eduki duen erantzunarekin. Beti egin dugu lan handia diskoetan, eta beti ka-

“

Disko honetan ia hogeikanta egin ditugu, eta bertatik aukeratu onenak”

leratu dugu diskoa, egindako lanagaz pozik gaudelako. Baina, antza, disko honetan bete-betean asmatu dugu: kritikoek zein iritzia bidaltzen diguten pertsonen laudorioek harritu gaituzte.

Patxada gehiagoz ibili zarete disko honeguz?

Apur bat denbora gehiago eman dugu disko hau prestatzen, eta beharbada lasaiago ibili gara. Abesti gehiago ere sortu ditugu diskoa osatzeko. Hamar-hamaka kantako diskoa egiteko aurrekoetan hamalau bat kanta sortu izan ditugu, baina honetan ia hogeikanta egin ditugu, eta bertatik aukeratu *Atlantida* osatu duten hamaka kantak.



Rockeroago?

Ibilbide luzea daukagu, eta nahiko estilo zehaztua, eta disko honetan gure nortasuna aldatu barik, zeozer diferentea egin gura genuen. Abestiak egin ahala joan gara horri forma ematen: ez dugu mugarik ipini, eta izan daiteke emaitza rockeroagoa izatea.

Zuen ibilbidean jarraitu zaituztenek aldaketa ondo hartzea lorpen handia da, ezta?

Orain arteko jarraitzailea ez galteza lortu dugula uste dut, eta igartzen da kasu gehiegi egin ez digun jendea gerturatu zaigula. Talde bati gerta dakioken gauzarik politena da hori.

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URTARRILAK 12 22:00etan
LOKALETIK AT!
Sugoi+Etorkizun beltza+ekaitza
KONTZERTUA.Sarrera doan.

URTARRILAK 17 20:30ean
MENDIAK HURBILDUZ II
MENDI JARDUNALDIAK. Doan.

URTARRILAK 18 22:00etan
SEI URTE + LINEA 2
KONTZERTUA.Sarrera: 6euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

SUEÑA CASANOVA

Arden Producciones

Urtarrilak 12 • 20:00

San Agustin
KULTUR
GUNEAN
DURANGOKO UDALA

JAIAK!

Antonio Deuna

2013ko URTARRILA | BERRIZ



Berrizko Udalak jai
zoriontsuak opa deutsuez

www.berriz.org



JAIEN EGITARAUA

Urtarrilak 13, domeka

10:00 Mendi bizikleta martxa. Izen ematea eta irteera, Olakueta plazan. Izen ematea doan.

Urtarrilak 16, eguaztena

18:30 Bentazarreko Mutiko Alaiak kantujiran, Olakuetan.

20:30 Olakuetarrek ibilalditxo egin ostean, donien-atxa altxatuko dute, Olakueta plazan.

Urtarrilak 17, eguna San Antonio Eguna

12:00 Meza, Antonio Deunaren basilizan.

16:30-18:30 Barrakak doan izango dira.

19:00 Askaria eta Nekazal Olinpiada, frontoian. Ikuskizuna, txorizo otartekoa eta edaria (jan-edana amaitu arte).

Urtarrilak 18, barikua

19:30 Sagardotegi ibiltaria eta erromeria trikiti doinuak alaituta. Ondoren, odoloste jana, Olakueta plazan.

21:30 San Antonio VII. Pilota Txapelketa (finalak), Olakueta frontoian. Ondoren, Bertso pilota. Bertsolariak: Iratxe Ibarra eta Gorka Lazkano. Pilotariak: Berasaluze IX (Berriz)-Antxia (Abadiño).

Urtarrilak 19, zapatua

10:00-14:00 Berrizko Ziklokros Sari Nagusia, Berrizburun.

17:30 Potxin eta Patxin pailazoak, Olakueta plazan: 'Txangoa'. Eguraldiaren arabera, Probalekuan izan daiteke.

19:00-22:00 / 01:00-02:00 Erromeria Haitzama taldeagaz, Olakueta plazan.

20:00 Txintxaun kolektiboaren 'The Full Monty' ikuskizuna, kultur etxean (sarrera bost euro).

Urtarrilak 20, domeka

11:00 Eskualdeko XXXII. Barazki eta fruta erakusketa, Probalekuan.

11:00 Artisau txokoa, frontoian.

12:00 Euskal Baserriko oilasko dastaketa, Olakueta plazan.

13:00 Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeen ekitaldia, Olakueta plazan.

Urtarrilak 28, astelehena

20:30 Donien-atxa kenduko dute.

21:00 Olakuetarren afaria.

Urtarrilaren 25etik 28ra

Idi probak, LVII. Antonio Deuna Sari Nagusia.



AZKONDO
TV
SONIDO
VIDEO
ELECTRONIKA

AZKONDO
ELEKTROTRESNAK
Iturriza, 8 - Berriz - 94 682 42 93

NESTOR ALDEKOA
HARATEGIA - URDAITEGIA

Espezialitateak: Behi Okela, Bertoko Txahala, Bildotsa, Txarrikiak eta Odolosteak

Iturriza kalea, 10 - Tel.: 94 682 43 20 - 48240 BERRIZ

ORLEGI TABERNA
Iturriza, 5 BERRIZ
Tel.: 94 682 48 28

Juliantxu
Jatetxea
94 682 40 77 - 48240 Berriz (Bizkaia)

Donien atxa jasota jai giroa nagusi eguaztenetik aurrera

San Antonio Egunaren bezperan jarriko dute donien atxa Berrizen; aurretik, arbola tabernarik taberna poteoan aterako dute berriztarrek

> JONE GUENETXEA

Donien atxagaz, Durangaldeko gainerako herrietan egiten ez den tradizioa dute berriztarrek San Antonio jaietan. Tabernarik taberna ibilalditxoak egiten dute Olakuetan. Poteo berezia izaten da baina, donien atxa ere beraiekin eroaten dute-eta. Baina, hori gutxi balitz bezala, taberna barrura sartzeko ohi-tura dute. Antolatzaileek diotenez, tabernaren baten leihotik kanpora ateratzen dute arbola, barruan ez baita kabitzen. Ondoren, donien atxa bere lekuan jarrita hasten dituzte jaiak Berrizen. Hala ere, aurten, Mendi Bizikleta Martxa aurreko asteburura pasatu dute, donien atxa jarri baino lehenago. Karmen Amezua jai batzordeko kideak azaldu duenez, "Mendi Bizikleta Martxa geroago eta jendetsuagoa da eta aurreratuz gero, momentu berean ez du bat

egingo beste ekitaldi batzuekin". Gainera aurten, abenduan hildako Iñaki Lejarreta txirindularia omenduko dute. Urtarrilaren 17an, berriz, meza emango dute San Antonio ermitan. Urtarrilaren 18rako,

Sagardotegi ibiltaria trikitilarietara etorriko da Berrizera, eta odoloste jana prestatuko dute

Ibarra eta Lazkano bertsolariek Berazaluze eta Antxiarekin jardungo dute Olakueta frontoian

jendetza batzen duen beste ekitaldi bat antolatuko dute. Arratsaldean sagardotegi ibiltaria trikitilarietara etorriko da Berrizera. Ondoren, odoloste jana prestatuko dute bertaratzen diren guztien gozamenarako.

Kirol arloan, San Antonio VII. Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte. Bertso pilota ekitaldia prestatu dute osterako. Iratxe Ibarra eta Gorka Lazkano bertsolariek Berazaluze IX (Berriz) eta Antxiarekin (Abadiño) jardungo dute frontoian.

Eskualdeko XXXII. barazki eta fruta erakusketa, Potxin eta Patxin pailazo ezagunen emanaldia, artisau txokoa eta Ireminie eta San Lorentzo dantza taldeen saioak dira, besteak beste, Antonio Deunaren jaiak borobiltzeko jai batzordeak aurreikusitako ekitaldietako batzuk.



Lehia eta dibertsioa batuko dira Nekazal Olinpiadetan

Hilaren 17an, San Anton egunez, egingo dute Nekazal Olinpiaden hirugarren edizioa

> MARKEL ONAINDIA

Hirugarren urtez jarraian egingo dituzte aurten Nekazal Olinpiadak. Aspaldiko ekimena izan arren, 2011ko Antonio Deunaren jaietarako berreskuratu zuten. Herritarrek taldeka parte hartzen dute jokotan, eta baserriko material edo gaiak izaten dira proba horien oinarri. Horrez gainera, ikustera ere animatzen dituzte herritarrek; iaz, esaterako, 400 lagun bueletan batu ziren frontoian. Euro bat kobratuko dute sarrera, eta ikuskizunaz

aparte, jana eta edana eskainiko dituzte, azaldu dutenez. Hilaren 17rako ipini dute zita, 19:00etan, frontoian. Bost laguneko taldea osatu behar dute

Euro bat kobratuko dute sarrera, eta ikuskizunaz aparte, jana eta edana eskainiko dituzte

interesdunek. Antolatzaileek esan dute momentuz hiru talde aurkeztu direla, eta beste hirurantzako lekua dago. Taldekide guztiak hamasei urtetik gorakoak izan beharko dira, eta denak lehiatu beharko dira. Beste baldintzetako bat taldeak mistoak izatea da.

Honako hauek izango dira probak: txokor-batzea, hiruko lasterketa, 25 kiloko zakua eroatea, txapel jaurtiketa eta begiak estalita laguna karretilan eroatea. Taldeen artean berdinketa suertatzen bada, soka-tiran erabakiko dute zein den onena. Saririk ez da faltako. Irabazleak 300 euro jasoko ditu, azpitzapeldunak 200 eta hirugarren sailkatzen denak 100.

ETXEBARRIA
ESTANKOA
Tabakoa
Papera
Opariak
Fotokopiak
Iturritza, 14 - Tel./Faxa: 94 682 79 58 - Berriz

Iturritza kalea, 9
Tel.: 94 682 40 09
48240 BERRIZ
fonda
TABERNA

JON
HARATEGIA
URDAITEGIA
Iturritzar, 9 - BERRIZ - 676 01 91 05 - 94 622 52 08

Liburudenda
Amaluz
aldizkariak
papera
opariak
Iturritza 29, Berriz Tel.: 94 682 62 48

“Parte-hartzaile kopuruan marka denak apurtzea espero dugu”

Domekako mendi martxa Iñaki Lejarretaren omenezkoa da aurten. Antolaketan ibili diren lagun askotako bat da Iñaki Etchezarraga berriztarra

Zelan eman daiteke izena martxarako?

Internet bidez izena emateko epea urtarrilaren 11ra artekoa da honako blog honetan: berrizmtbmartxa.blogspot.com. Egunean bertan ere egin daiteke 09:00etatik martxa hasi arte. Izen-ematea doakoa da.

Zeintzuk dira ibilbidearen ezau-garriak?

31,4 kilometro ditu eta 1.100 metroko desnibela. Olakuetan plazaatik abiatuko gara 10:00etan. Tartean pare bat bidezidor hartzeko aukera dago. Ibilbidea dena pistaz egiten da hasiera batean, Sarriatik Garairaino. Oiz pista eta mendi tarteetatik igotzen dugu. Ibilbide laburra egiten duena pistatik joango da, eta gainerakoak mendi bideetatik.

Aurreko urteko ibilbideagaz alderatuta, aldaketa asko daude?

Ez. Normalean beti Oiz ingururantz izaten da. Ibilbidea beti antzerakoa izaten da, baina berezitasun batzuk sartzen saiatzen gara.

Mendi martxako ibilbidea Iñaki Lejarreta zenak diseinatu du.

Hasieran bere aita Ismael aritzen zen, eta azken urteetan semeari emana zion testigua. Ibilbidearen ia ehuneko ehuna Iñakik diseinatu da. Abendurako kasik ibilbide osoa pentsatu zuen. Iñaki bide denetatik ibiltzen zen, eta aldaketa txikiak sartzen zituen: aldats bat, bidexka berriren bat... Aurtengo martxa bere omenezkoa izango da. Logo berezi bat ere diseinatu ta dago. Bertan bihotz bat ageri da eta barruan Iñaki Lejarretaren izena du, beti gure bihotzean izango dela adierazteko.

Ezagutzen al zenuen Lejarreta?

Bai, umetatik oso lagunak izan gara. Iñakirena kolpe izugarria izan da. Horrelako ezbeharrak gertutik bizi dituzunean gehiago markatzen zaitu.

“Aurten logo bat diseinatu dugu; bihotz baten barnean Iñaki Lejarretaren izena”

Martxa jendetsua izan ohi da urtero urtero.

Aurten marka guztiak apurtzea itxaroten dugu. Berrizko txirrindulari handiari omenaldia egiteko egun aproposa da; gainera, herrian bertan eta berak ere antolatzen zuen martxa batean. Iaz 800 bat parte-hartzaile izan ziren, eta aurten 1.000tik gora izatea espero dugu. Ize-

na ematen duten lehenengo mila parte-hartzaileak martxaren amaieran egingo ditugun askotariko oparien zozketan sartuko dira. Hainbat dendak eta herriko komertzioak laguntzen digute horretan.

Txirrindulari bat autoak harra-patuta hiltzen denean beti sortzen da segurtasunaren gaineko eztaba. Zer iritzi duzu?

Ni ere ibiltzen naiz bizikletaz errepidean. Ez da erraza errepidean ibiltzea, batez ere kamioiengatik. Horrelako zerbait gertatzen denean, lehenengo astetan, jendea nahiko sentibera egoten da, baina ondoren, denbora aurrera joan ahala betiko egoerara itzultzen gara. Ibilgailu handiak ezin dira txirrindulari bategaz alderatu. Bizidun bat doa bizikleta gainean. Gidariak horren kontzientzia izan behar du; era berean, txirrindulariak ere kontziente izan behar dugu non dagoen eta nondik doan. Alde bietatik eman behar da da kontzientzia zioa.



Ziklo-kros proban Bizkaiko txapelduna erabakiko da

Antonio Deunaren jaien barruan Berrizko Ziklo Kros Sari Nagusia jokatu dute urtarrilaren 19an, belodromo inguruan atondutako zirkuituan. Aurten, Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak hala proposatuta, Bizkaiko txapelduna ere Berrizen erabakiko da. Federazioagaz batera, Berriz Bizikletari Elkarteak eta Berrizko Udalak antolatuko dute proba.

Adin tarteka banatuta, kadeteetatik hasi eta nagusietera arteko mailetan lehiatuko dira 10:00etatik aurrera. Gizonen elitean Aitor Hernandez da faborito argia; emakumeetan Olatz Odriozola jo dute faboritotzat.

Gizonen lasterketa hasi aurretik—13:00etan— Iñaki Lejarretaren omenez minutu bateko isilunea egingo dute.

SAN ANTONIO, 1.
48.140 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46

pedrojuan
JATETXEA

HIERRROS burdinak eta metalak
RIEZU S.A.

Eitua Industrialdea, 4 - BERRIZ
94 682 41 31-Fax: 94 682 43 90
hierrosriezu@telefonica.net

DIA

Zengotitabengoa • BERRIZ ☎ 946 824 215

Harategi-Urdaitegi zerbitzua ere

> MENDI IBILBIDEAK**> Aisialdia**

Garaiko elizatearen gaineko informazioa jasotzen duen totema udaletxearen aurrean.

Durangaldearen historia eta ondarea ezagutzeko aukera

Goiurian hasi eta Elorrioren amaitzen den ibilbidearen bidez, Durangaldearen sorrera, erakundeak eta historia ezagutarazteko ibilbide turistikoa bi antolatu ditu Gerediaga Elkarteak

> JOSEBA DERTEANO

Ibilbidea autobusez egingo dute, eta zortzi geldialdi aurreikusten ditu Merioaren Ibilbidea osatzen duten zortzi gunetan, hain zuzen: Goiuria (Iurreta), Moioitioko San Juan (Garaiko), Garaiko elizatea, Gerediaga foru zelaia (Abadiño), Astolako auzitegia (Abadiño), Muntzaratz dorretxea (Abadiño), San Agustin Etxebarria eta Elorrioko uria. Urtarrilaren 19ko irteera gaztelarazkoa da eta 20koa euskarazkoa.

Euskarazko zein gaztelaniazko ibilbideetarako hitzordua goizeko 09:30ean ipini dute Iurretako plazan. Izena emateko modu bi daude; telefonoz (94 681 80 66) edo posta elektronikoz: gerediaga@durangokoazoka.com. Izena emateko 15 euro ordaindu behar da, eta urtarrilaren 16ra arteko epea dago horretarako. Zortzi gunetako bakoitzean informazioa hiru hizkuntzat

tzatan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) jasotzen duten totemak edo informazio guneak daude ipinita. Horietan datu historikoak eskaintzen dira, argazkiekin hornituta, eta mugikorretarako QR gakoak dituzte: "Gakoak gure web-


Euskarazko zein gaztelaniazko ibilbideetarako hitzordua 09:30ean da, Iurretako plazan

Zortzi gunetako bakoitzean informazioa hiru hizkuntzat jasotzen duten totemak daude

gunera gidatuko du bisitaria, eta bertan ibilbidea oinez, bizikletaz zein autoz egin gura duenarentzako *track*-ak ipintzen dihardugu", adierazi du Gerediaga Elkarteak kudeatzaile Aitziber Atorrasagastik. Hala, bakarka, lagunekin edo familian, edonoiz nor bere egunpasak antolatzeko aukera eskaintzen dute.

Ekimena aurkezteko martitzenean egindako prentsurrekoan Ana Otadui Elorrioko alkateak adierazi zuenez, ibilbide turistikoa "Durangaldea ezagutzera emateko baliabide ezinhobeak dira". Gerediaga Elkarteak Jon Irabazalek "turismoaren bidez, ondare elementuak balioan jarriko" dituztela azaldu du: "Besteak beste, ondare eta eskualde kontzientzia berreskuratzeko asmoz jaio zen ibilbidea". 2010etik hona eskualdeko ikastetxeetako ehundaka gaztetxoekin ere egin dituzte bisita gidatuak.

ZER IKUSI



Anbotoko mendizerra



Abadiñon, Gerediaga ermita



Elorrioko San Agustin eliza





Egin harpidedun!

Anboto etxera eroango dizugu



Juanjo Oleaga. **Durango**

ZORIONAK!

Juanjo Oleagak **EROSKI BIDAIK**ek eta **Anboto**k eskainitako astebeteko bidaiak irabazi du Kanariar Uharteetara.



Arsenio eta Amaia Cobo.
Elorrio

Arsenio eta Amaia Cobo aita-alabak Asturias edo Kantabriara asteburu pasa irabazi dute **EROSKI BIDAIK** eta **Anboto**ren eskutik.

Harpidedun egiteko 3 aukera dituzu:

1 anboto@anboto.org
helbidera idatzi.

2 946 681 65 58
telefonora deitu.

3 Kupoia bete eta
bidali Anbotora:
Bixente Kapanaga 9
48215 - IURRETA

Izena Abizenak

Telefonoa E-posta

Helbidea Herria

Zu zara anboto !



Kirolak

> TXIRRINDULARITZA

Lehengo sustraiei hazi berriak batuta dator CAF Transport Engineering

Arabako lau txirrindulari fitxatuta eta babesle berria lortuta hasiko du urtea Iurretako taldeak; gazteenak hezten jarraitzea eta jubentilei bultzada ematea izango dira aurtengo helburuak



CAF Transport Engineering taldearen aurkezpena, hilaren 3an, Iurretako Ibarretxe kultur etxean.

> M. ONAINDIA

Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak 2009an sortu zuen emakumeen txirrindulari taldea. Urteak pasata, taldea indartzea erabaki dute, eta horretarako txirrindulari eta babesle berriak topatu dituzte. Aurretik

Iñaki Gonzalez de Heredia zuzendariaren ekimenez egin dituzte lau arabarren fitxaketak

Arabako zenbait taldetan ibilitako lau kirolari batu zaizkie Durangalde eta Bizkaikoei.

“Oso talde baliotsua da”

Zuzendaria ere arabarra izango da: Iñaki Gonzalez de Heredia. Bere ekimenez egin dituz-

te lau arabarren fitxaketak. Zuzendariak txirrindularienganako konfiantza handia erakutsi du: “Oso talde baliotsua da, eta oso ilusionatuta nago”. Gonzalez de Herediaren arabera, gazteenak hezten jarraitu eta jubentilei bultzada ematea izango da

aurtengo helburua: “Batez ere Isasi, Intxaurrea eta Sanzen kasuan, bigarren urtekoak izanik, datorren urtean ere taldea eduki dezaten”.

Kirolari gazteak direnez, Gonzalez de Heredia adierazi du ikasketei ere garrantzi handia eman beharko dietela. “Euren karrera eta etorkizuna eduki dezatela”. Gogorazi du ez dela erraza txirrindularitzatik bizitzea, eta are gutxiago nesketan.

Babesleei eskerrak

Urtarrilaren 3an aurkeztu zuten publikoki taldea Iurretan. Patxi Torregrosa presidentek laguntza eskertu zien Iñaki Totorikaguena alkateari eta babesleei: Carletti kirol arropa, Ciclos Iturriaga, Autos Elorrio, Arribide Oil eta Iurretako Udala. CAF Transport Engineering enpresa izango da babesle nagusia. Beasaingo CAF enpresaren sarekoa da, eta Iurretan dauka egoitza.

CAF TRANSPORT ENGINEERING TALDEKIDEAK

- Ziortza Isasi (Elorrio)
- Lidia Saez (Elorrio)
- Olatz Agorria (Zornotza)
- Irati Intxaurrea (Lemoa)
- Amaia Leon (Ondarroa)
- Arantza Dilla (Sodupe)
- Ainara Sanz (Gasteiz)
- Xandra Martinez de Alegria (Gasteiz)
- Laura Cuenca (Gasteiz)
- Paula Lanz (Gasteiz)

> FUTBOLA

Iturraspek 2017ra arte luzatu du kontratua

Ander Iturraspek Athletic egaz zuen kontratua luzatu du; desegite klausula 40 milioi eurokoa da

> JOSEBA DERTEANO

Ander Iturraspek 2017ko ekainaren 30era arte luzatu du Athleticekin duen kontratua. Desegite klausula 40 milioi eurokoa izango da.

23 urteko jokalaririk abadiñarra pozik agertu da komunikabideen aurrean datozen urteetan Athleticen jarraituko duelako. “Oso erraza izan da akordio batera heltzea”, azaldu du Iturraspek. Beste jokalaririk ere berriro diete kontratua. Jonas Ra-

malhok, esaterako, 2015eko ekainaren arte berriro du, eta Enric Saborit Bilbao Athleticeko jokalaririk 2016ko ekainaren arte.

Durangaldeko futbolarietako dagoenez, Athletic zaleak Fernando Amorebietagaz zer gertatuko den zain daude. Iurretarrari 2013ko ekainean amaitzen zaio Athletic futbol klubarekin duen gaur egungo kontratua. Alde biak negoziatzen dabilta, baina oraindik ez dute ezer jakinarazi.

> TXIRRINDULARITZA

Durangaldeak ordezkaritza zabala Espainiako txapelketan

Egoitz Murgoitio ez ezik, etorkizun handia duten Aritz Hernandezek eta Jon Munitxak ere parte hartuko dute, besteak beste, ziklo kros txapelketan

> JOSEBA DERTEANO

Asteburu honetan Espainiako ziklo kros txapelketa jokatuko dute Navian (Asturias). Bertan, Durangaldekoak diren edo Durangaldeko talderen batean dabilta hainbat txirrindularik parte hartuko dute; batzuk, Euskadiko selekzioagaz ariko dira, eta beste batzuk, euren taldeak ordezkatzeko. Hirumetaldetik Egoitz Murgoitio eta Pablo Lastra joango dira As-

turiasera. Azken hori Euskadiko selekzioagaz ariko da. Beste Alde Orue Eskola taldeak lau txirrindulari izango ditu. Aritz

Beste Alde Orue Eskolako lau txirrindulari joango dira, eta CAF Transport Engineering-eko bat

Hernandez berriztarra (17 urte) eta Jon Munitxa abadiñarra (16 urte) Euskadiko selekzioagaz lehiatuko dira, eta Adrian Sainz eta Ekaitz Iturralde, aldiz, Beste Alde-Orue Eskolako elastikoagaz.

Iurretako CAF Transport Engineering taldetik, ostera, Paula Lanz gasteiztarra joango da Euskadiko selekzioagaz. Lehengo bosten artean geratzea du helburua.

> MENDIA

Eskaladaren gaineko bideo emanaldi bi Plateruenean

Lau lagunek Kanadan, Yukón zonaldeko pareta ikusgarrietan, bizi izandako abenturak jasotzen dituen dokumentala eskainiko dute datorren egunean



Kanadako Yukón zonaldera egindako espedizioko une batean.

JOSEBA DERTEANO

Mendia Hurbilduz ekimenaren barruan, mendiaren eta eskaladaren gaineko bideo emanaldi bi ikusi ahal izango dira datorren egunean, 20:30etik aurrera, Plateruena kafe antzokian. Dokumentaletako protagonistak ere etorriko dira bertaratzen direnen dudak eta jakin-mina asetzeko. Sarrera doakoa izango da.

Lehenengo dokumentalak Kanadako Yukón zonaldean 'eskalaezinak' deitzen diren tontoretan lau euskaldunek bizitako bizipenak erakutsiko ditu. Horietako bat durangarra da: Aitor Garitaonandia 'Ajillo'. Baina dokumentala ez da igoera zailetan bakarrik oinarritzen. Kanadatik Yukón zonaldera heldu arteko abenturak ere kontatzen ditu Jon Kepa Berasaluze ekimene-

Mikel Zabalzak Alpeetan eta Pirinioetan izandako eskalada saioak erakutsiko ditu

ko antolatzaileetako baten esanetan: "Bidaia osoa azaltzen da. Zelan milaka kilometro egin zizutuzten autoz, ondoren hidrohegazkin batek hamabost egunez ezerezaren erdian uzteko... Iru-di ikusgarriak jaso dituzte: paisaiak, animaliak...".

Bideo emanaldiaren ostean Kike de Pablos dinamizatutako galde-erantzunen txanda hasiko da abentura bizi izan zuten protagonistekin.

Segidan, Mikel Zabalza eskalatzaileru iruindarrak Alpeetan eta Pirinioetan eskalatatutako tontorrak jasotzen dituen dokumentala ikusi ahal izango da. Zabalza bera ere Plateruenean egongo da.

Mendia Hurbilduz ekimeneko lehenengo bideo emanaldiak atzo izan ziren. Lehenengo, *Hutsaren gainean dantzan* dokumentala eskaini zuten *slickline*-ari buruzkoa. Ondoren, Adolfo Madinabeitia gasteiztarrak Venezuelako Tepuy izeneko pareta bertikaletan egindako igorak erakutsi zituzten.

Mendia Hurbilduz ekimena Ourdaybi kirol taldeak eta Alpi-Tabira mendizale taldeak finantzatu dute eta antolatzaileek talde biek emandako laguntza eskertu dute.

> TXIRRINDULARITZA

Emakumeen Biraren data aurreratzeke eskatu dute

Iurretako Emakumeen Bira Elkarte eta Durangoko Txirrindulari Elkarte ez daude batere gustura UCI-k eman dien tratuagaz. Izan ere, aurten Emakumeen Birako egunetan zein Durangoko Klasikaren egunean beste lasterketa bi jarri dituzte, biak HC mailakoak. Mailarik oneneko taldeak lasterketa horietara joan daitezke, Klasikaren eta Biraren kalterako. Durangaldeko elkarte biek gutun bat bidali diote UCIk eurei emandako "tratu bidegabea" salatu eta data aldaketa eskatzeko.

Durangoko Klasika maiatzaren 21era aurreratzea eskatu dute; Emakumeen Bira, berriz, maiatzaren 23tik 26ra egingo litzateke.

> PILOTA

Txapelketa nagusiko partidua gaur, Zaldibarren

Gaur, 22:00etan, lehen mailako pilota txapelketako laugarren jardunaldiko partidua jokatu da Zaldibarren: Sebastian Gonzalez eta Aitor Zubieta Titin III.aren eta David Merinoren aurka.

Bikote biak txapelketako lehenengo garaipena lortzeki datoz. Txapelketa makal hasi ondoren, gaur irabazten duenak arnasa hartuko luke hurrengo jardunaldiei begira. Zubietaren esanetan, "oso puntu garrantzitsua dago jokoan; irabazten duena sailkapenaren postu erosoagoan kokatu da".

Gonzalezek eta Zubietak pilota astunagoak aukeratu dituzte: 105 eta 106 gramo bitartekoak. Bikote gorriaren pilotak 104 gramo inguruan dabilta.

ADITUAREN TXOKOA

Garazi Boveda

Futbola



Atera irribarre hori

Astean zeharreko entrenamenduetan zapatu arratsalde iritsi eta partidua jolasteko ilusioz egoten gara, eta, behin lehian gaudela, irabazteko gogoz, noski. Saillapenaren erdialdean gaude, horregatik, irabazitako eta galdutako lehiak parra daramatzagu. Irabazten dugunean, irribarre handi bat aurpegian bueltatzen gara etxera, eta hurrengo partidua jokatzeke gogo biziz egoten gara. Konfiantzaz beteta, aurkaria edozein delarik ere, irabaziko dugulako duda izpirik ez da egoten orduan. Baina, badira boladak taldekide batzuen lesioak direla eta, ate aurrean asmatu ezina dela eta, edo, beste berririk, aurkako taldeak itzelezko errebasoa emanda, hiruzpalau partidua jarraian galtzen edo, behintzat, irabazi ezinik ematen ditugunak. Halako garaietan aldagelako giroa epe-lagoa izaten da, eta nagitua sentitzen gara Larrakorako aldapa hartuta asteroko errutina betetzeko, zaletasuna betebeharra bihurtuko babiltaigu bezala. Baina, zorionez, aldageletan beti egon ohi da lagun bat, emaitza dena delakoa izanda ere, irribarre zabal batekin etorri, eta, 5 eta 1 galdutako partiduari buruz bromatzen eginda, taldeko hurrengo afaria antolatzen hasten dena. Horrela, gogorazten digu gure kategorian, irabazi nahiz galdu, hobeto edo txartoago jokatu, Larrakora futboleko jolastea gus-tatzen zaigulako joaten gara. Futboleko, bizitzako arlo guztietan bezala, gauzak baikortasunez eta umorez hartuta aurkako egoerei buelta errazago ematen zaiela.

clínica dental ■ hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre 2C blokea, behea - 48200 Durango - Tel.: 94 681 99 51

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Mari kalea, 9 DURANGO - Tel.: 94 681 50 17

> SASKIBALOIA

Tabirako Baqueko neskek 'Play off'ean sartu gura dute

Alberto Molinaren taldea igoera postuetan sailkatzeko lanean dabil; Tomas de Castroren mutilek altuera oztupoari aurre egin diote eta bigarren doaz



Durangoko Tabirako Baque klubeko neskek ligako partidu bat jokatzen. Kepa Aginako

> ANE ELORDI

Durangoko Tabirako Baque klubeko lehen mailako taldeek liga erdia jokatu dute dagoeneko. Gizonezkoek zein emakumezkoek garaipen banarekin bukatu zuten urtea, eta asteburuan ekin-

go diote berriz txapelketari Gabonetako oporren ostean.

Emakumezkoen lehen mailako taldea zortzigarren postuan sailkatuta dago. Hasiara eskasa egin zuten neskek, eta Gabon aurretik ere hiru jardunaldi ja-

rraian galdu zituzten. Baina urtea garaipenarekin bukatzeak indarrak eman zizkion taldeari urte berrirako, Alberto Molina entrenatzailearen berbatan.

Igandean sailkapen taulan azkena den Grupo Viaria Liceo

Monjardin izango dute aurkari. Garaipena eskuratzeko aukera dute, baina Molinaren ustez "aurkariaren zelaian jokatzek beti ditu bere zailtasunak". Amaierara begira, taldearen helburua sailkapen taulan lehengo bost postuetan sailkatzea da. *Play off*a jokatu eta igoera postuetan kokatzea, nahiz eta gaitz ikusten duten.

Gizonezkoen lehen mailako taldea denboraldi itzela egiten ari da. Jokaturako 12 partidu-

Urtea garaipenarekin bukatzeak indarrak eman zizkion taldeari

tik zortzi irabazi dituzte. Horrek sailkapen taulako bigarren postura eraman ditu Tomas de Castroren mutilak. Zapatuan ekingo diote denboraldiari, azken arreko sailkatu den Autocares Artiedaren aurka jokatuz Iruñean, 18:15ean. Hasieran jokalariren altuera falta oztupo ikusten zuten arren, beste ezaugarri batzuei etekina ateraz, oso emaitza onak lortu ditu taldeak denboraldiko lehen erdian. Haien helburua hamar onenen artean sailkatzea zen eta momentuz, aurreikuspenetik oso gora daude.

> ATLETISMOA

Brontzea Martinezentzat Euskadiko konbinatuan

Durungaldeko kirolariek emaitza onak lortu zituzten larunbatean, Anoetan (Donostia)

> ANE ELORDI

Begoña Martinez durangarrak eta Joseba Ogiza elorriarrak parte hartu zuten Euskadiko atletismo konbinatuko lehiaketan. Martinezek hesietan eta pisu jaurtiketan aurreko markak hobetu zituen arren, hirugarren postuan sailkatzearekin konformatu behar izan zuen. Oso datu

positiboa da markena, martxoan zita garrantzitsuak dituztelako: Espainiako Txapelketa, Zaragozan, eta Europakoa, Donostian. Gizonezkoen kadete mailan, Ogiza elorriarrak pisu jaurtiketan markarik onena lortu zuen (11,20 metro), baina proba guztien batura egiterakoan laugarren sailkatu zen.



Begoña Martinez durangarra entrenamendu saio batean.

> KORRIKA

Martinez, Lekunberri eta Bilbao irabazle Zornotzan

Zornotzako Nazioarteko Krosean Bidezabal taldeko hainbat korrikalari nabarmendu ziren



Bidezabaleko neskek goi mailan aritu ziren beste behin.

> JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Nazioarteko Krosean Bidezabal atletismo taldeko hainbat neska nabarmendu ziren joan zen asteburuan. Gaztetxo-kadete kategorian Naroa Martinez durangarra izan zen irabazlea, eta Ines Pinaga taldekidea hirugarren sailkatu zen. Gazteetan Garazi Lekunberri nagusitu zen, era-

kustaldia emanda. Gizonetan, Alejandro Bilbao gaztea onena izan zen gaztetxo-kadete mailan.

Bestalde, herri krosean Durango Kirol taldeko hiru kidek osatu zuten podiuma: lasterketa Ekaitz Kortazarrek irabazi zuen eta Gorka Bizkarra eta Mikel Zabala sailkatu ziren bigarren eta hirugarren.

> AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Elorrio-Santurtzi

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalde futbol zelaian

Iurretako-Gallarta

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelai futbol zelaian

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

Abadiño-Iraultza

· Zapatuan, 15:30etan, Astolan

Berriz-Zaldúa

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

BIGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi-Derio B

· Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Zaldúa B-Iurretako B

· Domekan, 16:30ean, Solobarrian

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Iurretako-La Merced

· Zapatuan, 19:15ean, Larrakozelain

Elorrio-Erandioko Betiko Neskek

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

EUSKAL LIGA

Abadiñoiko Lagun-Sasikoa Durango

· Zapatuan, 17:15ean, Berrizko kiroldegian

Kurutzaga-Elorrioko Buskantza

· Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiñoiko Gaztetxie-Gernika Naturgas energia

· Domekan, 17:00etan, Traña Matienako kiroldegian.

Dantzari-Mazusberri

· Zapatuan, 17:30ean, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan

Sapuberri-Gu Lagunak

· Zapatuan, 15:30ean, Landako kiroldegian

Elorrioko B-Zuentzat

· Barikuan, 20:00etan, Elorrioko kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Mendibeltz-Racing Tolosto

· Zapatuan, 16:45ean, Landako kiroldegian

Elorrioko C-Egartsuak

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian

> ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

DRT-Independiente

· Domekan, 12:30ean, Arripausuetan errugbi zelaian

EUSKAL LIGA

Elorrio Parra Taberna-Irun

· Domekan, 12:00etan, Elorrioko errugbi zelaian

EUSKAL LIGA

Errugbi topaketa Bilbon zapatuan: kimu eta benjamin mailak

· Autobusak: 08:45ean Elorri, 08:55ean Abadiño eta 09:00etan Durangoko Madalenan.

> PILOTA

LEHEN MAILAKO TXAPELKETA

Gonzalez-Zubieta / Titin II.a-Merino

· Barikuan, 22:00etan, Zaldibarko Olazar pilotalekuan

INMOBILIARIAK >



AMBOTO
INMOBILIARIA

San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarrekoko etxebizitzak alokairuan.

IURRETA

- Baseri zatia. Sukalde-jangela, logela eta komuna. Berogailua eta ur beroa. Ekonomikoa.

ZORNOTZA

- 2 logelako atikoa. Sukaldea, egongela-jangela eta komuna. Aitzariek. 6. solairua igogailu gabe. 550€.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- SAN INAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 119.000€-tik AURRERA. EZ GALDU AUKERA HAU.
- 2 logelako apartamentua. Egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. 114.000€. Berriztatuko.
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Garajea eta trastelekua.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje ibxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abehete bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta frutarbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta ahelebea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

DURANGO

- Bibizitzako etxea eraikitzeko lursaila. Proiektuarekin.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA

Barrenkalea 15, behe • Tel./Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
- DURANGO-ERRETENTXU: Adosatuak salgai, bifamiliarrak eta unifamiliarrak.
- OTXANDIO: Adosatuak. Eraikuntza berriak. 174.500€-tik aurrera.
- ETXEBIZITZAK SALGAI
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- INTXAURRONDO: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
- IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kobzerentzako garajea eta trastelekua.
- JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa. Lursailarekin.
- KALEBARRIA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. (Guztiz berriztatua).
- KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztatua eta erdi jantzia).
- KOMENTU KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantokia, 3/4 logela eta komuna. Ganbara.
- LAUBIDETA: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- ONITURRI: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela-jangela, 2 komun eta eskegitokia. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- TXATXIENA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta despentsa. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- SAN FAUSTO: Halla, sukalde-jangela, 2 logela eta komuna.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- TABIRA: Halla, egongela-jangela, logela, komuna eta eskegitokia.
- UNDA-TORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
- URKO KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara eta garajea.
- ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3 logela eta 2 komun.
- ANTISO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ANTISO ESTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatzen.
- ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- ALLLUITZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje ibxia.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komuna eta 2/3 logela. Ganbara.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Berriztatua.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Despentsa.
- ERROTARITXUENA: Estreinatzen. Halla, sukalde jantzia, 1 edo 2 logela, egongela eta 2 komun. Esekitekia eta terraza. Garajea aukeran.
- GALLANDA: Estreinatzen. Halla, sukaldea, egongela, 1 edo 3 logela, 1 edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
- GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua.
- ABADIÑO: Iturritxo kalea. Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta 2 komun. Eskegitokia. Garajea eta trastelekua.



Inmobiliaria del Duranguesado

Askatasun etorbidea, 10 • 48200 DURANGO
Tel./Fax: 94 681 66 66
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ASKATASUN ETORBIDEA: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra, garajea, ganbara 185.000€ + bez
- 2 logela garajea eta ganbararekin 233.000€ + bez
- 3 logela garajea eta ganbararekin 350.000€ + bez
- EZKURDI: Estreinatzen. Viviendas de Vizcaya. 3 logela. Hainbat orientazio eta gainazal. Azkeneko etxebizitzak salgai. 268.000€-tik aurrera. Garajea eta ganbara.
- MARTXOAREN 8KO: erdi berria. 93 m2. Atikoa. 3 logela. 75 m2-ko terraza. Ikuspegi ederrak.
- MARTXOAREN 8KO: erdi berria. Beheko solairua 90m2-ko terrazarekin. 2 logela. Garaje ibxia.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 108m2. Erdi berria. 3 logela, egongela, sukaldea guztiz jantzia, 2 komun, garajea eta ganbara. Balkoi oso handia etxebizitzaz guztian zehar.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 83 m2. 3 logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Erdi berria.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 74 m2. EZINHOBEA. ETXE OSOAK KANPORA JOTZEN DU. 2 logela. Garajea eta ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 80 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. Ganbara.
- ALLUITZ-ASKATASUN: 76m2. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- ZABALE: 99m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta eskegitokia. Balkoia eta garajea. Trastelekua aukeran.
- ZABALE: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta balkoia. Garajea eta ganbara. Etxe osoak kanpora jo du. Zatoz ikustera!
- SAN ROKE: 80 m2. 3 logela, egongela eta sukalde jantzia balkoiarekin. Beste balkoi bat hegoaldera. Ganbara handia. Guztiz berriztatua.
- HERRIKO GUDARIEN: 140 m2. 3 logela. 3 terraza. 2 komun. Garajea. Azkeneko solairua. Eguzkitsua. Ikuspegi politak.
- ANDRA MARI: 180 m2. 4 logela, 2 komun, bainugela, sukaldea eta jangela. Ganbara eta garajea.
- EZKURDI: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Prezio ona.
- EZKURDI: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia.
- PLATERUEN PLAZA: 97 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea, trastelekua eta ganbara. Etxe osoak kanpora jotzen du.
- MURUETA TORRE: (Viviendas de Vizcaya) 83 m2. 3 logela, egongela eta sukalde eskegitokiarekin. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora jotzen du.
- MURUETA TORRE: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- LANDAKO: 80 m2. 2 logela, egongela balkoiarekin, 2 komun, sukaldea eta jangela. Ganbara eta garajea.
- LANDAKO: 134 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun. Balkoi handia. Ganbara. Garajea aukeran.
- TABIRA: erdi berria. 50m2. Logela, egongela, sukalde jantzia, komuna, balkoia eta ganbara.
- TABIRA: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua eta ikuspegi ederrekoa.
- ALLUITZ: erdi berria. Logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. Ganbara. Bizitzeko sartzeko moduan.
- MADALENA: erdi berria. 50 m2. Logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Eskegitokia.
- MADALENA: 96 m2. Aukera. Saltzeko premia lekualdatzeagatik. 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun.
- ARKOTZA: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.
- KURUTZIAGA: 80 m2. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoi handia. Ikuspegi ederrak.
- SASIKOA: 85 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Ikuspegi polita eta eguzkitsua.
- TXIBITENA: erdi berria. Logela bakarra. Ganbaran beste logela bat. Garajea.

Aipatutako etxebizitez gain,
Durangalde osoan etxebizitzen aukera
zabala dugu, 66.000€-tik aurrera.
www.inmoduranguesado.com



ETXETXO
G. INMOBILIARIA

F.J. Zumarraga, 11
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

BERRIAK ESTREINATZEKO

- IURRETA
- 2 eta 4 logela eta 2 komun. Ganbara. 190.000€.
- ZALDIBAR
- Garajea eta trastelekuarekin.
- Logela eta komuna. 105.100€.
- 2 logela eta 2 komun. Terraza. 142.000€ + bez
- 3 logela eta 2 komun. Terraza. 180.200€ + bez
- % 100 eko finantzaketa. 450€/hileko Ipar Kubxa.
- ATIKOA: 92 m2. 3 logela eta 2 komun. 3 terraza. Garajea eta trastelekua. Berria. Estreinatzen. 220.960€ + BEZ.

AUKERA

- ERDIGUNEAN: 2 logela, komuna eta egongela handia. Igogailua. Bizitzeko prest. 114.000€.
- IURRETA: 2 logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du. Guztiz berriztatua. 120.000€.
- DURANGO: 4 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. 99.000€.
- MASPE: 3 logela, egongela eta sukaldea. Igogailua. Berogailua. Berriztatua. 156.300€.
- MURUETA TORRE: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. 206.000€.
- LANDAKO: 3 logela, 2 komun, egongela terraza handiarekin eta sukaldea eskegitokiarekin. Ganbara eta garajea. 237.400€.
- JUAN DE ITZIAR: 1. solairua. 143.200€.
- MATIENA: 3 logela eta egongela. Igogailua. 125.000€.
- EZKURDI: 90 m2. 3 logela, egongela eta 2 komun. Igogailua. 156.000€.
- INTXAURRONDO: 75 m2. 2 logela eta 2 komun. 27 m2-ko ganbara. Garaje ibxia. Terraza. Eguzkitsua.
- BIDEBARRIETA: 85 m2. Berria. 3 logela eta 2 komun. Garajea aukeran. 216.000€.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- GALLANDA: Apartamentua. Jantzia. Trastelekua eta garajea. 186.000€.
- ASTEPE: 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- TXIBITENA: 4 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- BARRENKALE: Berria. Duplexa. 2 logela eta 2 komun. Estreinatzen. 210.000€.
- MENDIZABAL: Pisu altua. 2 logela eta komuna. Ganbara. Garaje ibxia.
- ANTISO ESTEGIZ: Pisu altua. 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara.
- ERDIGUNEAN: 3 logela eta komuna. Igogailua eta berogailua. 170.000€.
- FRANZISKO IBARRA: duplexa. Erdi-berria. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- ERROTARITXUENA: Estreinatzen. ATIKOA. 40 m2-ko 2 terraza. Garaje ibxia.
- ZUMARPARKEA (TABIRA): Erdi berria. 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Garajea eta trastelekua.

BESTE ZONALDE BATZUK

- ABADIÑO: Berria. 2 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 198.000€.
- MAÑARIA: 110 m2. 3 logela. Terraza. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. Aitzariek. 156.000€.
- IURRETA: Bixente Kapanaga. 3 logela, sukaldea eta egongela terrazarekin. Eguzkitsua.
- ATXONDO: landa etxea. 100 m2-ko lorategia. Berezia.
- ZALDIBAR: baserria. 420 m2. 7.000 m2-ko lursaila. 390.000€.

GARAJEAK

- SAN IGNAZIO: Garaje ibxia. 21.000€.
- ABADIÑO: Garaje ibxia. Salgai.

LOKALAK

- ZABALE: 60 m2. Egokitua. 425€.
- TRONPERRI: 60 m2. Egokitua. 590€.
- ERMODO: 65 m2. Egokitua. Alokairuan.
- MADALENA: 45 m2 + 20 m2 tarteko solairua. Egokitua. Alokairuan edo salgai.

Bizkaiko Txapelketa **BERRIZKO** **ZIKLOKROSS** **SARI NAGUSIA** **2013**



Berrizburun urtarrilaren 19an

ORDUTEGIA

- 10:00 Kadeteak neskak eta mutilak.
- 11:00 Junior mutilak; Junior, Sub-23 eta Elite neskak.
- 12:00 Master 30/40/50/60.
- 13:00 Sub-23 eta Elite mutilak.

Argazki: Aitor Aleschiaro

ANTOLATZAILEAK



BABESLEAK



Zu zara > anboto !



**Hemen duzu
zure egutegia!
Ohiko lekuetan salgai.**

DURANGO

- Arkarazo
- Alpino taberna
- Pol-pol
- Herriko taberna
- Antzokia
- Hitz liburudenda
- Urrike liburudenda

IURRETA

- Mila janari denda
- Urien liburudenda
- Iurreta kopistegia

GARAI

- Herriko taberna

ABADIÑO

- Estankoa
- Zure denda
- Petite
- Larrano

ATXONDO

- Mari okindegia

ELORRIO

- Tximeleta
- Ilargi

BERRIZ

- Fonda
- Ganeketxe
- Pedro Juan

ZALDIBAR

- Imendia
- Baratza

OTXANDIO

- Danoena taberna

MAÑARIA

- Herriko taberna

IZURTZA

- Azkonizaga
- Herriko taberna

MALLABIA

- Okindegia
- Herrikoa

2€



**Gutxi batzuk geratzen dira.
Bizkor ibili eta ez galdu aukera!**

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Urtarrilaren 11n, 22:00etan
Elorriko Arriolan

CASANOVA

Gaur Elorri, eta bihar Durangoko San Agustin kulturgunean izango da 'Sueña Casanova' antzezlan ikusgai. Testu garaikideko istorio klasikoa egin du Arden taldeak.



:: BERRIZ

Urtarrilaren 11n, 18:00etan
Borobil Teatroak-en
Alibaba eta 40 lapurrak,
Kultur Etxean.

:: DURANGO

Urtarrilaren 12an, 20:00etan
Arden Producciones-en
Sueña Casanova, S. Agustinen.

:: ELORRIO

Urtarrilaren 11n, 22:00etan
Arden Producciones-en
Sueña Casanova, Arriolan.

:: ZORNOTZA

Urtarrilaren 18an, 21:00etan
Markeliñe taldearen
Makinista, Zornotza Aretoan.



:: DURANGO

Urtarrilaren 12an, 22:00etan
Sugoi (Elorrio), Etorkizun Beltza (Gernika), Ekaizta (Munitibar),

Urtarrilaren 18an, 22:00etan
Sei Urte eta talde gonbidatua,
Plateruenean.



:: BERRIZ

Urtarrilaren 11n, 19:00etan
En la casa,
Kultur Etxean.

Urtarrilaren 18an, 18:00etan
Freddy Igeldegi,
Kultur Etxean.

:: DURANGO

Urtarrilaren 17an, 20:30ean
Mendi jardunaldia
Mendiak hurbilduz,
Plateruenean.

Urtarrilaren 17an, 20:30ean
Mendi jardunaldia
Mendiak hurbilduz,
Plateruenean.

:: ZORNOTZA

Urtarrilaren 11n, 22:30ean
Film laburrak
Kimuak 2011-2012,
Zornotza Aretoan.



:: IURRETA

Urtarrilaren 25era arte
Iurretako Literatur lehiaketa,
Bibliotekan.



:: ABADIÑO

Urtarrilaren 17an, 12:00etan
San Anton jaiko meza,
Urkiolako Santutegian.

:: BERRIZ

Urtarrilaren 13an, 10:00etan
Mendi bizikleta martxa,
Irteera: Olakueta plaza.

Urtarrilaren 16an, 18:30ean
Bentazarreko mutiko alaiak,
Kalejira, Olakueta. **20:30ean**
Donien atxa altxatzea.

Urtarrilaren 17an, 12:00etan
meza, Antonio Deunaren eliza.
19:00etan Nekazal olinpiada,
Olakueta frontoian.

Urtarrilaren 18an, 19:30ean
sagardotegi ibiltaria, Olakueta
plazan. **21:30ean San Antonio**
VII. pilota txapelketaren finalak,
Olakueta frontoian.



:: DURANGO

Urtarrilaren 12an, 12:00etan
Ipuin kontalaria
Umeentzako ipuinak
arabieraz eta gaztelaniaz,
Bibliotekan.

Urtarrilaren 18an, 20:00etan
Maider Galarza kontalaria
Helduentzako ipuinak,
Bibliotekan.



:: DURANGO | ZUGAZA

1. aretoa:

Jack Reacher

Zuzendaria: C. McQuarrie

- barikua 11: 19:00/22:00
- zapatua 12: 19:30/22:30
- domeka 13: 19:30
- astelehena 14: 19:00/22:00
- martitzena 15: 20:00

2. aretoa:

Amor es todo lo que necesitas

Zuzendaria: Susanne Bier

- barikua 11: 19:00/22:00
- zapatua 12: 19:30/22:30
- domeka 13: 19:30
- astelehena 14: 19:00/22:00

UMEEN ZINEMA



1. aretoa:

El alucinante mundo de Norman 3D

Zuzendaria: Sam Fell

- zapatua 12: 17:00
- domeka 13: 17:00

2. aretoa:

Don gato y su pandilla

Zuzendaria: Alberto Mar

- zapatua 12: 16:30
- domeka 13: 16:30

:: ELORRIO | ARRIOLA

La parte de los ángeles

Zuzendaria: Ken Loach

- zapatua 12: 22:30
- domeka 13: 20:00
- astelehena 14: 20:00

UMEEN ZINEMA



Hotel Transilvania

Zuzendaria: G. Tartakovsky

- domeka 13: 17:00

:: ZORNOTZA

Los miserables

Zuzendaria: Tom Hooper

zapatua 12: 19:00/22:30

domeka 13: 20:00

astelehena 14: 20:00

UMEEN ZINEMA



Rompe Ralph!

Zuzendaria: Rich Moore

- zapatua 12: 17:00
- domeka 13: 17:00



Urtarrilaren 11n, 18:00etan, Berrizko kultur etxean

ALIBABA ETA 40 LAPURRAK

Borobil Teatro taldeak dakar 'Alibaba eta 40 lapurrak' ipuin klasikoaren anizerkirako moldaketa hau Berrizera. Gaur arratsaldean, 18:00etan hasita eskainiko dute haurrentzako ikuskizuna, kultur etxean.

URTARRILEKO AGENDA



11

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA

17:00 Haurtxoen irakurketa kluba (3, 4, 5 urte)
18:00 Haurtxoen irakurketa (1. eta 2. mailak)

12,13

IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA

09:00 Hainbat ibilbide (82-92) km.

12

IURRETAKO KIROL TALDEA - FUTBOLA

17:00 Iurretako - Gallarta

13

EMAKUMEEN BIRA ZIKLISMO K.E.

10:00 Challenge bizkaitarraren proba, Zallan

15

HERRI AUZOA ELKARTEA

Durungaldeko Elkartasun karabana 2013
Urtarrilaren 15a arte:
- Jubilatuen etxean (Bixente Kapanaga, 9)
- Ibarretxe kultur etxea (Bidebarrieta, 4)
- Bulego orokorrak (Bidebarrieta, 5)
- Herriko janari dendak
Informazio gehiago: 94 620 03 42

16

EMOIXU

16:30 - 21:00 Odol emotea, Txonpolo elkartean

18

IURRETAKO UDALA

09:00 Iurretako Kale Azoka

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztieneko 17:00ak arteko epea



> **Beñatek** lau urte bete zituen abenduaren 19an. Zorionak txipiron! Musu handi-handi bat Urkuletako familia osoaren partez!



> Zorionak **Jone!** Abenduaren 23an 7 urte bete zituen. Musu bat Unax, Urko, aita, ama eta Oromiño eta Matienako familiaren partez!



> Abenduaren 4an jaio zen **Ametz Alberdi Gorritxategi.** Ongi etorri eta musutxu bat Araia, aitatxo, amatxo eta familia osoaren partez!



> **Araiak** abenduaren 24an 3 urtetxo bete zituen. Zorionak musu pila eta besarkada bat Amets, aitatxo eta amatxoren partez!



> **Izar Blanco**k 2 urte egin zituen abenduaren 21ean. Zorionak eta musu potolo-potolo bat Unax, ama eta aitaren partez!



> Zorionak **Beñat!** Elorrixoko mutiko guapo eta jatorrena! Olentzerok eskatutako dana ekarri izana espero dut. Musu bat Ainhoaren partez!



> Zorionak Berrizko **Martin Peñeteri,** abenduaren 21ean bere lehen urtetxoa bete zuelako. Musu handi bat etxekoan partez!



> Dagoeneko 6 urte bete dituzu, baina motorrean ibiltzeko oraindik gehiago hasi behar duzu. Zorionak **Mikel,** musu handi handi bat!



> Bi ipotx hauek bi urtetxo bete zituzten abenduaren 16an. Zorionak **Unax** eta **Malen!** Musu potolo bana etxeko guztion partez!



> Zorionak txikitxu! 3 urte bete dozuz urtarrilaren 4an eta! Uxuek belarritik tirakada handi-handi bat! Musu bat familia osoaren partez!



> **Lur Gallo Garitanok** bihar beteko du bere lehen urtea. Poztasunez bete dau gure bizitza. Zorionak Oihanen eta beste etxekoan partez!



> 9 urte beteko dozuz bihar **Garazi.** Zorionak eta musu handi bat etxekoan partez! Eta koadrillakoek belarritik tirakada bana!



> Mutil zoragarri honen bosgarren urtebetetzea urtarrilaren 16an izango da. Zorionak eta musu potolo bat guztion partez!



> Urtarrilaren 4an gure **Jontxuk** urtebete ein eban. Zorionak eta musu asko danon partez. Segi holako sinpatiko eta alaia izaten!



> **Mikel Arrizabalaga Zuazok,** urtarrilaren 2an, 6 urte bete ebazan. Zorionak etxeko guztien partez eta zaren modukoa izaten jarraitu!



> Urtarrilean jaioak, biok alaiak eta jatorrak, familia guztiaren partez, segi horrela eta zorionak! Musu handi bana guztion partez!



> **Alaznek** atzo, urtarrilaren 10ean, 18 urte bete ebazan. Zorionak guapa! Musu potolo eta besarkada haundi bat etxekoan partez!



> Urtarrilak 7an, arratsaldeko 19:30ean etorri zen mundura **Mairi Lejarreta Telletxea.** Inaki eta Naiararengandik datorren argi disdiratsua.



> Bihar, urtarrilaren 12an, **Leirek,** gure printzesatxoak, 6 urtetxo beteko ditu. Zorionak Helene, aita eta amaren partez!



> Zorionak **Danel!** Urtebete egin zenuen urtarrilaren 5ean. Musu handi bat Abadiñotik, batez be zure lehengusina Magalin partez!



> Zorionak **Zubillagatar Jose Luis!** Abenduaren 15ean urteak bete zenduzan eta oso ondo pasatu genduan. Datorren urtean beste bat!



> Hirukote honek urte berria hasi ahala urteak betetzen dituzte, **Intzak** jada 4 urtetxo, **Iratik** bere lehen urtetxoa eta aitatxok... apur batzuk gehiago! Musu asko amatxoren partez!



Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 08 6
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

> BOTIKAK

- BARIKUA, 11**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
09:00-22:00
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
- ZAPATUA, 12**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
09:00-13:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
- DOMEKA, 13**
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
- ASTELEHENA, 14**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
09:00-22:00
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
- MARTITZENA, 15**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)
- EGUAZTENA, 16**
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-13:00
• Larrañaga-Balenciaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
- EGUENA, 17**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 94 681 09 49
Osakidetza 94 600 72 00
Ertzaintza 94 466 93 00

> GARRAIOAK

- Euskotren 902 54 32 10
Bizkaibus 94 448 40 80
Pesa 902 10 12 10
Continental Auto 945 286 466

> TAXIAK

- Abadiño 94 681 44 70
Matiena 606 459 988
Durango Geltokia 94 681 10 01
Elorrio Geltokia 94 682 00 40
J.L. Uriarte 670 402 002
I. Estebez 670 678 273
M. Galeano 670 409 330
Iurreta 94 620 15 65
Taxi auzunea 688 618 690
Berrizko auzo taxia 620 022 800

> EGURALDIA

4° 12° BARIKUA		4° 12° ZAPATUA	
4° 9° DOMEKA		5° 7° ASTELEHENA	

> UDALAK

- Abadiño 94 621 55 30
Atxondo 94 682 10 09
Berriz 94 682 45 84
Durango 94603 00 00
Elorrio 94 658 27 12
Garai 94 681 63 93
Iurreta 94 620 12 00
Izurtza 94 681 35 48
Mallabia 943 17 14 61
Mañaria 94 681 89 98
Otxandio 945 45 00 20
Zaldibar 94 682 70 16

> UDALITZAINGOA

- Abadiño 94 621 55 33
Berriz 94 682 40 36
Durango 94 603 00 00
Elorrio 94 682 02 18
Iurreta 94 620 08 88

> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA





Abadiño (Traña-Matiena)
Eguaztenetan
10:00etatik aurrera

Durango
Zapatu goizetan

Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga 0,80 euro
Porruak 1,80 euro/tx
Azenarioak 1,50 euro/tx
Azela 2 euro/kg
Aza 2 euro/kg
Koliflorra 3 euro/kg
Kalabaza 2,20 euro/kg
Kiwia 3 euro/kg
Tomate kontserba 3,90 euro/potea
Arrautzak 3,80 euro/dz
Idiazabal gazta 17 euro/kg
Espeltazko ogia 3,60 euro



GREMIOEN GIDA



ELEKTRONIKA



AROTZERIA



ITURGINTZA

URBASA ELEKTRONIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com

Televés
Instalazio Ofiziala

Panasonic

EGUIA s.l.
AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinterioegula.com

Boleguren kalea 3 - AEMADINO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.s@terra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



GARBIKETAK



ELEKTRIZITATEA ARGITAZPENA

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goietza, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

ARGITATZE TEKNIKAK
MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



LORAZAINTZA



DEKORAZIOA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Discinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen
eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guztiak zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21
Fax: 94 682 48 95 - info@jaiobarnizatuak.com

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



Profesional onenak zure zerbitzura!



“Ilusio handiz joaten naiz ikasle izandakoen kontzertuetara”

Koruetan zuzendari, eskolan irakasle... Itzartzetik lokartu arte musika doinuekin bizi da durangar hau

> AMAIA UGALDE

Gabonetako oporretatik beharrra gustura bueltatu dela dio Esther Hernandez Unzueta. Lagun batek esan dio: “Noski! Zuri zure lana gustatu egingen zaizu eta!” Elorrioren bizi den durangar hau duela 25 urte hasi zen abesbatzen zuzendari, eta harrezkero, ez da gelditu ere egin.

Noiztik zaude musikak harra-patuta?

Bost urtekin hasi nintzen, San Frantziskon. Han, kanturako eta korurako ohitura handia zegoen. Kontserbatorioan solfoea eta korala egin nituen, eta gero, ikasketekin nengibilen artean, gitarra eta pianoko karre-rak egin nituen. Selektibitatea egin eta gero, organuko karrera egin nuen. Lehen errazagoa zen, institutuan zeunden artean kontserbatoriora joan ahal zinelako. Orain, gauza biak bateratzea gaitzagoa da.

Elorrioko Berriotxoan abesbatzeko eta Zaldibarko eskola koraleko zuzendaria zara.

Bai, eta oso gustura. Pena txiki batekin: jendea gutxitu da, batez ere Zaldibarren. Lehen 50-60 pertsonako korua izandakoan 16 gaude orain. Hala ere, kanturako afizioa jendeak mantentzen du. Gabon aurrean, koruko jendea gitarrekin irten ginen, tabernaz taberna kantu herrikoiak kantatzera. Jende pilo bat zitaigun! Itzela izan zen! Esan nien koruko, ea pertsona horietakoren bat korura animatzen den... Baina entseguetara hastea gehiago kostatzen da. Koru bietan oso giro ona daukagu. Elorriora 18 urte gaz etorri nintzen kantatzera.

Lagun batek esan zidan korua Galiziara zihoala, eta pare bat ahots behar zituztela. Etorzen hasi nintzen, eta hemen geratu nintzen. Juanito abadeak gero zuzendari lanetarako engantxatu ninduen, eta 25 urte egin ditut bertan. Bizitza erdia, beraz!

Lourdesko Ama Ikastetxean irakaslea zara. Umeak edo helduak dira ikasle hobeak?

Umekin pazientzia eduki behar da, baina helduekin pazientzia desberdina da. Ume txiki bati errieta egin ahal diozu, baina nagusi bati... Kontu handiagoa eduki behar da.

Ume zinenetik hona, eskolan musika irakasteko modua aldatuko zen...

Ez dauka zerikusirik. Lehen lo-roek bezala ikasten genguen, eta orain, jolasten ikasten dute; oso ondo pasatzen dute. Gauza asko ikasten dute, baina teoria gutxiago eta beste modu batean. Gero, benetan ikasteko gogoia daukanak sakondu egingo du. Izan ditut ikasleak umetan aspertu eta gero nagusiagotan musikari berriz ekin diotenak.

Umetan musika ikasteak zer onura ditu, zure ustez?

Kultura musikala hartzen da, eta hori bizitzarako garrantzitsua dela uste dut. Kontzertu batera joan, eta zer entzuten zabilzan jakiteko, zuk zeuk musikan jarduteko... Musi-

ka hizkuntza bat da, eta mundu osoan komunikatu zaitezke musikarekin. Askok gustatzen bazaitzu, poztasuna eta gogobetetzea dakarzkizu. Itzartzerakoan musikarekin hasten baduzu eguna, ez da ezer barik hastea bezala. Bizitzan oso garrantzitsua da musika.

Kontzertuetarako astirik hartzen duzu?

Ahal dudan guztietan joaten naiz. Denetik gustatzen zait; gehien musika klasikoa, jazza, bluesa... Ilusio handia egiten dit nire ikasleek talde batean jozteak eta eurak ikustera joateak. Askotan pasatu zait, hasieran musikan jarraitu gura ez zuten gaztetxoek talde bat sortu dutela ikustea. Itzela da!



AITOR AURREKOETXEA

EHUko irakaslea



Txetxenia

Txetxenia ez da soilik Kaukaso ondoan dagoen herrialde bat. Txetxenia sinbolo bat ere bada, eta ez bakarrik bere sufrikarioa izugarria delako, baizik eta genozidio horretan gertatutakoa ez delako inoiz nazio arteko agendetan agertu.

Txetxeniaren sufrikarioa ez da gaur egungo kontua. Errusiako tsarren garaian ere, gogor jo zuten herrialde horren kontra. 1917an, iraultza sozialista etorri zen, eta Sobietar Batasuneko agintariek, Leninetik hasita Gorchovoren, txetxenoen kontrako errepresio bortitza planifikatu zuten; erregimen sobietarraren ohiko jokabideak erabili-ta: tortura, herrialde barneko ezinbesteko migrazioa eta sar-raskia.

Hala ere, herrialde horretara zorizaiztorik handiena Stalinek etorri zen, eta gainera, urte asko iraun izan zuen. Txetxeniaren asko Gulagen gaitibu egon ziren, eta beti saiatu izan ziren bere kartzeleroen kontra borrokatzen, beste guztiak etsitzen zuten bitartean. Menderaezinak zirela frogatu zuten. Gero, Sobietar Batasuna desagertu egin zen eta Boris Yeltsin eta Putin etorri ziren demokrazia formala aldarrikatzera, baina, txetxenoentzat ez zen inolako tre-guarik egon.

Duela urte batzuk jakin izan dugu Grozni hiriburua nola geratu zen Errusiako armadak bonbardatu eta gero, eta hunkigarria da benetan, nola hiriburu hori Dresde edo Nagazaki baino txikitago utzi zutela ikustea.

Badakigu ez dela bortizkeria inperialista pairatzen duen herri bakarra; Kurdistane-k, Palestinak edota Afrikako Chadek ere pairatzen baitute, baina, ikur bihurtu da, eta hor gertatzen ari dena salatzen ez badugu, Txetxenia izango da aurten ere existituko ez den gatazka espektrala.






INMOBILIARIA SAN FAUSTO, S.A.
parte har ezazu zozketan

PROMOZIO BERRIA TRAÑA-ERROTAN (Maliena)
2 eta 3 logelako udal etxebizitza tasatuak
174.600 eurotik aurrera

Tel.: 630 993 167 - 94 457 17 00

Informazio bulegoa obran bertan

www.sanfausto.es

Izen-ematea
2013ko
otsailaren
1a arte